

TOLOSAKO UDALA

Tolosako «7.-Hirigune Historikoa» esparrua birgaitzeko plan bereziaren behin betiko onespena.

Udalbatzak, 2010eko ekainaren 28an egin zuen osoko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziari, onarpen erabakian ezarritako zenbait zehaztapenekin batera.

Bertan, onartu zen Alkatezari ahalmena ematea, Hirigintzako Batzordearen diktamena aurretik duela, Testu Bategina onartzeko, onspen erabakiaren arabera egindako aldaketak jasota.

Idazleek testu bategina aurkeztu dute, dokumentazio idatziaren euskarazko itzulpenarekin batera (Arau Orokorrak, esparru berezietako Arau partikularrak eta Katalogoa).

Ikusirik, udal teknikoak idatzi duen txostena, eta Hirigintza Batzordearen diktamena, alkateak honako hau

EBATZI DU

Lehena. «7. Hirigune Historikoa» esparrua birgaitzeko Testu Bateratuari onarpena ematea

Bigarren. Plana bidaltzea Gipuzkoako Foru Diputaziora, Hirigintza Planeamenduen Administrazio Erregistroan jasotzeko.

Hirugarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, behin betiko onspen erabaki osoa eta Planaren hirigintza arauak, eta Plana Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan 2010eko azaroaren 16an zartu da.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jar daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA. Birgaitzeko plan bereziaren edukia, indarraldia eta ondorioak

1. artikulua. Izaera eta esparrua.

1. Birgaitzeko Plan Berezi hau (aurrerantzean BPB edo Plana) Eusko Jaurlaritzak kalifikatutako monumentu multzo deklaratu zuen Tolosako Hirigune Historikoa osotasunean antolatzeko hirigintza-tresna da. Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean eta ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketari buruzko 317/2002 Dekretuan eta lurzoruaren erregimenari buruzko gainerako legeetan eta legeria osagarrian xedatutakoaren arabera idatzi da.

2. BPBak erabat ordeztzen du bere mailako aurreko plangintza-dokumentua. Aurreko plana indarririk gabe geratuko da BPBa indarrean jartzen denean, arau hauetan espresuki aurreikusten diren iragankortasun-ondorioak edo indarreko araudiaren babesean bidezkoak izan litezkeenak izan ezik. Dagokion dekretuak finkatutako mugaketa osoan izango du indarra. Mugaketa hori planoetan definituta dago.

3. BPBaren mugaketa bat dator bai Tolosako Hirigune Historikoa kalifikatutako monumentu multzo deklaratu zuen dekretuaren kanpoko mugaketa osoarekin bai Birgaitze Integratuko Eremu deklaratu zuen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren 1999ko abenduaren 30eko Aginduaren mugaketekin.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Aprobación definitiva del plan especial de rehabilitación del ámbito «7. Casco Histórico» de Tolosa.

Con fecha 28 de junio de 2010, el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, aprobó con carácter definitivo, el Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico, con inclusión de distintas determinaciones incluidas en el acuerdo de aprobación.

En el mismo, se delegaba en el Alcalde, para que previo dictamen de la Comisión de Urbanismo, aprobara el Texto Refundido en el que se recogieran todas las modificaciones derivadas del acuerdo de aprobación.

El equipo redactor ha presentado el texto refundido, así como la traducción al euskera de la documentación escrita (Normas Generales, Normas particulares de ámbitos especiales y Catalogo).

Visto el informe emitido por el técnico municipal, y el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, esta Alcaldía

RESUELVE

Primero. Aprobar el texto refundido del Plan Especial de Rehabilitación del ámbito «7. Casco Histórico de Tolosa».

Segundo. Remitir a la Excmá Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento urbanístico.

Tercero. Publicar en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y el texto Refundido de las normas urbanísticas del Plan, con entrada en el Registro Administrativo de planeamiento urbanístico el día 16 de noviembre de 2010.

La presente resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse Recurso Contencioso Administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la notificación o pública de esta Resolución.

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

SECCION 1. Contenido, vigencia y efectos del plan especial de rehabilitación

Artículo 1. Naturaleza y ámbito.

1. El presente Plan Especial de Rehabilitación (en adelante PER o Plan) es el instrumento urbanístico de ordenación integral del Casco Histórico de Tolosa declarado como Conjunto Monumental Calificado por el Gobierno Vasco. Se redacta de conformidad con lo dispuesto en la Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco y el Decreto 317/2002 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación, y las demás leyes sobre régimen del suelo y legislación complementaria.

2. El PER sustituye plenamente al precedente documento de planeamiento de su rango, el cual queda derogado para dicho ámbito a la entrada en vigor del mismo, salvo los efectos de transitoriedad expresamente previstos en estas Normas o que resultaran procedentes al amparo de la normativa vigente. Regirá en toda la delimitación fijada por el decreto correspondiente, que queda definida en planos.

3. La delimitación del PER coincide con la delimitación externa total tanto de la declaración como CMC como de las delimitaciones de la declaración como Área de Rehabilitación de la Orden de 30 de diciembre de 1999 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente de Tolosa.

2. artikulua. BPBaren dokumentazioa: Edukia eta elementuen balioa.

1. BPBa honako dokumentu hauek osatzen dute:

a) Dokumentazio idatzia I. Ez da arauemailea. Helburu orokorrak seinatzen ditu eta zehaztapenak hartzeko aintzat hartu diren irizpideak adierazi eta justifikatzen ditu. Honako hauek biltzen ditu:

- Gizarte- eta hirigintza-azterketa (memoria).
- (Antolamendua) deskribatzeko eta justifikatzeko memoria.
- Ekonomia- eta finantza-azterketa.
- Jardun-programa.

b) Dokumentazio idatzia II. Arauemailea da eta honako hauek biltzen ditu:

- Arau orokor hauek.
- Esparru berezien arau partikularrak (arau hauen azken titulua).
- Katalogoa.

c) Dokumentazio idatzia III. Informatzailea eta arauemailea da eta honako hauek biltzen ditu:

— Informazioa (gizarte eta hirigintza alorrekoa) eta eraikuntza-unitateen arau partikularrak (ordenantzak).

d) Informazio-planoak eta antolamendu-planoak (azkenak besterik ez dira arauemaileak):

- Gizarte- eta hirigintza-azterketaren informazio-planoak (ikus gizarte- eta hirigintza-azterketaren sarrera).
- Antolamendu-planoak.

3. artikulua. Interpretazioa.

1. Plan honen zehaztapen arautzaileak edukia kontuan harturik eta memorian adierazitako helburuak eta xedeak betez interpretatuko dira. Zalantzarik edo zehaztugabetasunik izanez gero, eraikigarritasun txikiaren eta espazio librean zuzkidura handienaren edo ekipamendu komunitarioaren aldekoena den interpretazioa nagusituko da.

2. Dena den, kontraesanik izanez gero, hirigintza-arau partikularrak izango dira nagusi arau orokorren eta dokumentazio grafikoaren gainetik. Eta dokumentazio grafikoa arau orokorrei nagusituko zaie.

3. Arrazoizko zalantzak sortzen dituen argibide edo interpretazio orok gaiari buruzko txosten tekniko-juridikoa eskatuko du. Bertan interpretatzeko dauden aukerak adieraziko dira eta udalbatzak erabakiko du horietariko zein den zuzena eta, gero, ohar argigarri gisa gehituko zaio Planari.

4. Plana osatzen duten dokumentuetan edo horien artean hautematen diren akats materialak edo kontraesanak udalbatza-ren akordio simple bidez zuzendu ahal izango dira, eta, hala badagokio, aldizkari ofizialean argitaratu eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaio kopia. Dokumentuaren zehaztapenen funtsezko alderdiei eragiten dietenean, Planaren aldaketetarako ezarritako izapide berberak egin beharko dira.

4. artikulua. BPBaren indarraldia.

1. BPBak indarraldi mugagabea izango du behin betiko onarpena argitaratzen denetik aurrera, horretarako legez ezarritako moduan onar litezkeen balizko aldaketa edo berraztertzeen kalterik gabe.

Artículo 2. Documentación del PER: Contenido y valor de sus elementos.

1. El PER está integrado por los siguientes documentos:

a) Documentación escrita I, que no es normativa, que señala los objetivos generales y expresa y justifica los criterios seguidos para adoptar sus determinaciones y que contiene:

- Estudio socio-urbanístico (Memoria del mismo).
- Memoria descriptiva - justificativa (de la ordenación).
- Estudio económico financiero.
- Programa de actuación.

b) Documentación escrita II, que es normativa y que contiene:

- Las presentes Normas generales.
- Las Normas particulares de ámbitos especiales (título final de estas Normas).
- Catálogo.

c) Documentación escrita III, que es informativa y normativa y que contiene:

— Información (socio urbanístico) y normas particulares (ordenanzas) de las unidades edificatorias.

d) Planos de información y de ordenación (sólo normativos los últimos):

- Planos de información del estudio socio-urbanístico (véase la introducción del ESU).
- Planos de ordenación.

Artículo 3. Interpretación.

1. Las determinaciones normativas de este Plan se interpretarán atendiendo a su contenido y con sujeción a los objetivos y finalidades expresados en la Memoria. En los casos de duda o de imprecisión prevalecerá la interpretación más favorable a la menor edificabilidad y a la mayor dotación de espacios libres o al equipamiento comunitario.

2. En todo caso, y de existir contradicciones, las Normas Urbanísticas Particulares prevalecen sobre las Normas Generales y sobre la documentación gráfica. Y la documentación gráfica prevalece sobre las Normas Generales.

3. Toda aclaración o interpretación que suscite dudas razonables, requerirá un informe técnico-jurídico sobre el tema, en el que se indicarán las posibles alternativas de interpretación, definiéndose la Corporación sobre cuál es la correcta, incorporándose en lo sucesivo como nota aclaratoria del Plan.

4. Los posibles errores materiales o contradicciones que se detecten en los documentos integrantes del Plan o entre éstos, podrán corregirse mediante acuerdo simple de la Corporación, y en su caso publicación en el Boletín Oficial, remitiéndose copia al Gobierno Autónomo. Cuando sean de tal entidad que afecten a los aspectos substanciales de las determinaciones del documento, deberá seguirse una tramitación idéntica a la establecida para las modificaciones del Plan.

Artículo 4. Vigencia del PER.

1. El PER tendrá vigencia indefinida a partir de la publicación de su aprobación definitiva, sin perjuicio de sus eventuales modificaciones o revisiones que puedan aprobarse en la forma legalmente prevista para ello.

5. artikulua. BPBaren berraztertzea.

1. BPBaren berraztertzetat hartuko da egitura orokorrari dagozkion irizpide berriak hartzearen edo ondoren zerrendatzen diren inguruabarretarikoren bat agertzearen ondorio den antolamendu berria:

a) Esparru juridikoaren eta hirigintza alorrekoaren funtsezko aldaketak gertatzen direnean eta horiek berraztertzea automatikoki zehazten dutenean.

b) Goragoko mailako ekonomia- edo lurralde-antolamenduko dokumentu bat onartzen denean eta horrek hala xedatu edo behartzen duenean.

2. BPBak indarrean hamar urte daramanean, udalak berraztertu behar den ikusiko du. Horretarako, arestian adierazitako inguruabarretarikoren bat gertatu den edo helburu berriak agertu diren edo Plana bera gauzatu den bitartean zeudenak behingoa berrorientatu diren aztertuko du.

3. Berraztertzea partziala izan daiteke, behar den bezala justifikatuta, Planak antolatutako Hirigune Historikoaren zati batera edo multzo homoginoa osatzen duten haren zehaztapenenetarikoko batzuetara mugatzen bada, edo bi kasuetan aldi berean.

6. artikulua. BPBaren aldaketak.

1. BPBaren aldaketatzat jotzen da arau hauetan xedatutakoaren arabera berraztertzea ez den zehaztapenen aldaketa eta, oro har, Planaren osotasuna edo bere aurreikuspenen koherentzia berriz hausnartu gabe onar daitezkeen aldaketa guztiak, ez baitiote eragiten, modu puntuallean eta bakartuan izan ezik, Hirigune Historikoaren egitura orokorrari.

2. Aldaketak espresuki justifikatu beharko du proposatutako aldaketaren beharra, baita aldatzen den Planaren eredia bere horretan uzten dela eta aldaketak Planaren gainean duen eragina justifikatu ere.

3. BPBaren aldaketak, aldatutakoaren arabera, bi motatakoak izan daitezke:

a) Aldaketa egituratzailea: Dagokion udal-planaren zehaztapen egituratzaileetan eragina duenean, indarreko legeriaren arabera.

b) Aldaketa xehatua: Zehaztapen xehatuetan besterik ez badu eragina.

4. Lehen batean ez dira BPBaren aldaketatzat jotzen:

a) Jardun-programaren zehaztapenetan egindako aldaketak.

b) Arau hauetan aurreikusitakoaren arabera, legeak eta Planak berak garapen plangintzaren esku uzten duten zehaztasun-tartearen ondorio izan daitezkeen aldaketak. Bereziki, halakotzat hartuko dira plangintza-tresnen eta kudeatzeko mugaketan egiten diren egokitze puntual hutsak, betiere sistema orokorren edo espazio librean murrizketarik ez badakarte.

c) Plana interpretatzeko akordio sinpleak eta Planaren alderdi zehatzak garatzeko edo argitzeko ordenantzen onarpena (arau hauetan aurreikusitak ala ez).

d) Akats materialen edo aritmetikoen zuzenketa, aplikatzeak den legeriaren arabera.

Artículo 5. Revisión del PER.

1. Se entenderá por Revisión del PER la nueva ordenación producida por la adopción de nuevos criterios respecto de la estructura general, o por la aparición de algunas de las siguientes circunstancias:

a) Cuando se produzcan modificaciones sustanciales del marco jurídico-urbanístico que determinen automáticamente la revisión.

b) Cuando se apruebe un documento de ordenación económica o territorial de rango superior que así lo disponga o lo haga necesario.

2. Transcurridos diez años de la vigencia del PER, el Ayuntamiento considerará la conveniencia de proceder a su revisión por haberse producido alguna de las circunstancias anteriormente reseñadas, o por la aparición de objetivos nuevos o reorientación de los existentes sobrevinida durante la ejecución del propio Plan.

3. La revisión podrá ser parcial, cuando justificadamente se circunscriba a una parte del Casco Histórico ordenado por el Plan o de sus determinaciones, que formen un conjunto homogéneo, o de ambas a la vez.

Artículo 6. Modificaciones del PER.

1. Se considera como modificación del PER aquella alteración de sus determinaciones que no constituya supuesto de revisión conforme a lo dispuesto en estas Normas y, en general, las que puedan aprobarse sin reconsiderar la globalidad del Plan o la coherencia de sus previsiones por no afectar, salvo de modo puntual y aislado, a la estructura general del Casco Histórico.

2. La modificación deberá justificar expresamente la necesidad de la alteración propuesta, así como el mantenimiento del modelo del Plan que se modifica y su incidencia sobre éste.

3. Las modificaciones del PER en función de lo alterado pueden ser de dos tipos:

a) Modificación estructurante: Cuando afecta a las determinaciones estructurantes del Plan Municipal correspondiente, según la legislación vigente.

b) Modificación pormenorizada: Si sólo afecta a determinaciones pormenorizadas.

4. No se consideran, en principio, modificaciones del PER:

a) Las alteraciones en las determinaciones del Programa de Actuación.

b) Las alteraciones que puedan resultar del margen de concreción que la ley y el propio Plan reserva al planeamiento de desarrollo, según lo previsto en estas Normas. En particular, se considerará así los meros ajustes puntuales en la delimitación de los instrumentos de planeamiento y de gestión, siempre que no impliquen reducción de los sistemas generales o de los espacios libres.

c) Los acuerdos singulares de interpretación del Plan y la aprobación de Ordenanzas para el desarrollo o aclaración de aspectos concretos del Plan, previstas o no en estas Normas.

d) La corrección de los errores materiales o aritméticos, de conformidad con la legislación aplicable.

II. KAPITULUA. ARAU IRAGANKORRAK

1. ATALA. Lehendik dauden erabilerak eta eraikinak

7. artikulua. Antolamendu berriarekin bat datozen egoerak.

1. Plan hau indarrean jartzen denean lehendik dauden erabilerak, eraikinak eta instalazioak, haren zehaztapenekin bat datozenak eta, horrenbestez, bertan xedatutakoa beteko dutenak, Plan honekin bat datozela eta bateragarriak direla ulertuko da.

8. artikulua. Antolamendu berriarekin bat ez datozen lehendik dauden erabileretarako zehaztapenak.

1. Beren ezaugarriengatik dokumentu honetan deskribatutako motaren batekin parekatu ezin diren egungo erabilerak goragoko plangintzan edo legerian ezarritakoak arautuko ditu.

2. Lehendik dauden erabilerek, espresuki antolamenduz kanpokotzat edo ordenantzez kanpokotzat jotzen ez badira behintzat, beren horretan jarraitu ahal izango dute. Horretatik salbu geratuko dira sailkatutako jardueren dekretuan ezarritakoa eta zaratak edo bibrazioak igortzen dituztelako pertsonentzat gogaikarriak izan daitezkeenek bete behar dituzten baldintzak.

9. artikulua. Antolamendu berriarekin bat ez datozen eraikinetarako zehaztapenak.

1. Antolamendu berriarekin bat ez datozen eraikinak honako egoera hauetakoren batean egon daitezke:

- a) Antolamenduz kanpo.
- b) Ordenantzez kanpo.

2. Antolamenduz kanpokotzat jotzen dira honako egoera hauetan dauden eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak:

- a) Planak espresuki adierazten dituenak.
- b) Bide-sistema gisa kalifikatutako lurzorua (lerrokadura-egokitze hutsen eraginpekoak izan ezik), espazio libreak edo berdeguneak eta zuzkidura-erabilera publikora zuzendutako lurzorua okupatzen dutenak, bai sistema orokorrekoak bai tokiko sistemakoak badira.
- c) Plangintzaren arabera desjabetu behar diren edo nahitaez eta doan laga behar diren lur-eremuetan kokatzen direnak edo eraikin horiek eraitsi edo desjabetu behar direnetan kokatutakoak.
- d) Arau hauek, udal-ordenantza espezifikoek edo segurtasunari, osasungarritasunari edo ingurumenaren babesari buruz indarrean dauden lege-xedapenek onartutako maximoak urratzen dituzten ingurumenaren gaineko eraginak dituzten erabilerak hartzen edo eratzen dituztenak.

3. Antolamenduz kanpokotzat jotzea ez zaie aplikatzen babes-mailetariko edozeinetan edo babes-neurri bereziak ezarritzen dituzten BPBaren katalogoetan sartuta dauden eraikinei.

4. Ordenantzez kanpoko egoeran egongo dira, Plan honen zehaztapenekin bat ez etorri arren, antolamenduz kanpokotzat jotzeko ezarritako suposizioetan ez dauden eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, eta, horrenbestez, Plan honek berarekin bateragarritzat hartuko ditu.

CAPITULO II. NORMAS TRANSITORIAS

Sección 1. Usos y edificaciones existentes

Artículo 7. Situaciones conformes a la nueva ordenación.

1. Se entienden conformes y compatibles con el presente Plan los usos, construcciones e instalaciones existentes a la entrada en vigor del presente Plan que resulten conformes con sus determinaciones y que por tanto se sujetarán a lo en él dispuesto.

Artículo 8. Determinaciones para los usos existentes no conformes con la nueva ordenación.

1. Los usos actuales que por sus características no puedan asimilarse a alguna de las clases descritas en este documento, se regularán por lo establecido en el planeamiento o legislación superior.

2. Los usos existentes, a no ser que se declaren expresamente como fuera de ordenación o fuera de ordenanzas, podrán seguir existiendo, a excepción de lo establecido en el Decreto correspondiente de Actividades clasificadas y las condiciones a cumplir por la que puedan ser causa de molestias a las personas por ser emisoras de ruidos o vibraciones.

Artículo 9. Determinaciones para las edificaciones no conformes con la nueva ordenación.

1. Las edificaciones no conformes con la nueva ordenación podrán encontrarse en alguna de las siguientes situaciones:

- a) Fuera de ordenación.
- b) Fuera de ordenanzas.

2. Se consideran fuera de ordenación los edificios, construcciones e instalaciones que se encuentren en las siguientes situaciones:

- a) Los que expresamente indique el Plan.
- b) Los que ocupen suelo calificado como viario (con excepción de los afectados por meros ajustes de alineaciones), espacios libres o zona verde así como el destinado a uso dotacional público y ello si forman parte tanto del sistema general como del sistema local.
- c) Los que se emplacen en terrenos que, en virtud del planeamiento, deban ser objeto de expropiación, o de cesión obligatoria y gratuita o bien donde se haya de llevar a cabo la demolición o expropiación de dichos edificios.

d) Los que alberguen o constituyan usos cuyos efectos de repercusión ambiental vulneren los máximos tolerados por las presentes Normas, por las Ordenanzas Municipales específicas o por las disposiciones legales vigentes en materia de seguridad, salubridad o protección del medio ambiente.

3. La calificación como fuera de ordenación no es de aplicación a los inmuebles incluidos en cualquiera de los niveles de protección o en los catálogos del PER que establezcan medidas especiales de protección.

4. Se encontrarán en situación de fuera de ordenanzas los edificios, construcciones e instalaciones que aún siendo disconformes con las determinaciones del presente Plan no se encuentran en ninguno de los supuestos establecidos para el supuesto de fuera de ordenación, por lo que este Plan los considera compatibles con el mismo.

10. artikulua. Antolamenduz kanpoko egoeraren erregimena.

1. Antolamenduz kanpokotzat jotzea obra-lizentziak ukatzeko arrazoia izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Kontserbazioa, mantentze-lanak eta eraberritze xeheak, beti onartuko baitira.

b) Antolamenduz kanpoko egoera zehazten duten kausak ezabatzerazuzentzen direnak, egoera hura konpon daitekeenean.

c) Finkatzeko edo konpontzeko obra partzialak, baldin eta obrak egin nahi diren egunetik hasi eta hamabost urteko epean eraikina desjabetzea edo eraitea edo erabilera kentzea aurreikusita ez badago. Salbuespen hau ezin zaie erabilera kaltegarri aplikatu.

d) Finkatzeko edo konpontzeko obra partzialak, baldin eta hamabost urte igaro baino lehen eraikina desjabetzea edo eraitea edo erabilera kentzea aurreikusita badago, eta jarduera eta instalazioenak, baldin eta jabeak, lizentzia-eskaeran, espresuki uko egiten badiu eskatutako lizentziaren xede diren obra eta instalazioen ondoriozko desjabetzearen balio-gehitzeari.

11. artikulua. Ordenantzez kanpokotzat jotzearen ondorioak.

1. Ordenantzez kanpokotzat jotzen diren eraikinetan mota guztietako obrak egitea onartzen da. Halaber, bolumena handitzea dakarten obrak egitea onartzen da, betiere emaitzazko eraikigarritasunak udal-plan honek baimendutakoa gainditzen ez badu.

2. Alabaina, edozein arrazoiengatik eraikina eraitsi edo botatzen bada, eraikin berriak Plan honen araudiekin eta ordenantzekin bat etorri beharko du, eta jabeak ez du kalteordaina jasotzeko eskubiderik izango.

12. artikulua. Behin-behineko erabilerak eta eraikinak.

1. Behin-behineko erabilera eta jardueretarako baimenak indarrean dagoen legerian ezarritakoak arautuko ditu.

II. TITULUA

JARDUN ETA EKINTZEN ERREGIMEN OROKORRA

I. KAPITULUA. ERREGIMEN OROKORRA

13. artikulua. Aplikatzekoa den lege-esparrua eta eskubi-deak eta eginbideak betetzeko epeak.

1. Legeriak berak zehazten dituen kasuetan behartzen duen Plan honen goragoko mailako legeria guztiak osatzen du aplikatzekoa den lege-esparrua.

2. Eraikitze eta urbanizatzeko aurreikusitako epeak indarreko hirigintza-legerian ezarritako epeetara egokituko dira. Azken horiek, betiere, izaera osagarria izango dute. Epea jardun gabe amaitzen bada, eskubidea bertan behera geratzen dela ulertzen da eta udalak zehaztapenak aldatu egin ditzakeela, bai Planaren aldaketaren bai berraztertzearen bitartez.

3. Lurzoruaren eta eraikinen titulartasuna eskualdatzeak ez du jabearen egoera juridikoa aldatuko une bakoitzean, eskualdatzailearen posizio juridikoan eta hirigintza alorrekoan subrogatuko da-eta.

Artículo 10. Régimen de la situación de fuera de ordenación.

1. La calificación como fuera de ordenación es causa de denegación de licencias de obras, salvo los siguientes supuestos:

a) Los de conservación, mantenimiento y reforma menor, que serán admisibles en todos los casos.

b) Las que vayan directamente dirigidas a eliminar las causas determinantes de la situación de fuera de ordenación cuando ésta sea subsanable.

c) Las parciales de consolidación o reparación cuando no estuviese prevista la expropiación o demolición del inmueble o la erradicación del uso en el plazo de quince años desde la fecha en que se pretendiese realizarlas. Esta excepción no es aplicable a los supuestos de usos lesivos.

d) Las parciales de consolidación o reparación, cuando estuviese prevista la expropiación o demolición del inmueble o la erradicación del uso antes de quince años, y las de actividades e instalaciones, siempre que el propietario, en la solicitud de licencia, renuncie expresamente al aumento de valor de la expropiación derivado de las obras e instalaciones para las que se solicita licencia.

Artículo 11. Consecuencias de la calificación fuera de ordenanzas.

1. Para los edificios calificados como fuera de ordenanzas se permite la realización de todo tipo de obras. Asimismo, se admite la realización de obras que supongan aumento de volumen siempre que la edificabilidad resultante no supere la permitida por el presente Plan Municipal.

2. Sin embargo, en caso de demolición o derribo por cualquier causa, el nuevo edificio deberá ser acorde con las ordenanzas y normativas de este Plan, sin que el propietario tenga derecho a indemnización.

Artículo 12. Usos y edificaciones provisionales.

1. Las autorizaciones de usos y actividades provisionales se regularán por la establecido en la legislación vigente.

TITULO II

RÉGIMEN GENERAL DE ACTUACIONES Y ACCIONES

CAPITULO I. RÉGIMEN GENERAL

Artículo 13. Marco legal aplicable y plazos para el cumplimiento de derechos y deberes.

1. El marco legal aplicable es toda aquella legislación de orden superior a este Plan que obligue en los casos determinados por la propia legislación.

2. Los plazos previstos de edificación y urbanización se ajustarán a los plazos establecidos en la legislación urbanística vigente que tendrán, en todo caso, carácter supletorio. Si el plazo se agota sin actuar, se entiende que el derecho queda suspendido y que el Ayuntamiento puede modificar las determinaciones, bien sea por Modificación o por Revisión del Plan.

3. La transmisión de la titularidad del Suelo y de las edificaciones no alterará la situación jurídica del propietario en cada momento de los mismos ya que se subrogará en la posición jurídico-urbanística del transmitente.

14. artikulua. Eskubideen eta eginbideen erregimen orokorra.

1. Jabeen eskubideak eta eginbideak askotarikoak dira eta lurzoruek edo eraikinek Planaren definizio globalean eta/edo partikularrean duten kokapenak eta funtzionaltasunak definitzen ditu. Eraikigarritasunerako eskubideak definizio bolumetrikokoak ematen ditu, bolometria arautzen duen kapituluaren arabera eta, hala badagokio, dagozkien unitate integratuek emandako eraikigarritasunak aintzat hartuta.

2. Egin daitezkeen jardunei eta ekintzei buruzko zehaztapenen bitartez gauzaten dira, betiere Planak adierazten dituen baldintzak (hainbat alderditan) betetzen badituzte.

15. artikulua. Burutu daitezkeen jardun motak.

1. Jardun esaten zaie, oro har, legerian aurreikusita dauden hirigintza kudeatzeko moduei. Kudeaketari begira, jardun motak honelakoak izan daitezke:

a) Sistematisak: Jardun-unitate integratuen barruko gauzate-unitatei dagozkie. Hala badagokio, hirigintza-arau partikularretan (unitateen fitxak) garatzen dira.

b) Asistematisak: Gainerako jardun motei dagozkie. BPBan honelakoak dira gehienak.

16. artikulua. Burutu daitezkeen ekintza motak.

1. Ekintza esaten zaie, oro har, burutu daitezkeen gauzate materialeko tresnei. Ekintzaren gaiari dagokionez, ekintza motak honela sailka daitezke:

2. Urbanizatzeko ekintzak.

3. Eraikuntza berriko eraikitze ekintzak. Honelakoak izan daitezke:

- a) Oin berrikoak.
- b) Berreraikitzeak.
- c) Handitzeak.

4. Birgaitzeko eraikuntza-ekintzak. Honelakoak izan daitezke:

- a) Eraberritze osoak.
- b) Eraberritze partzialekoak.
- c) Eraberritze xehekoak.

5. Eraisteko ekintzak.

6. Eraikitzeak ez diren ekintzak: Erabilera-aldaketak.

7. Ekintza mistoak. Aurreko artikuluetan zehaztutako bi ekintza edo gehiago biltzen dituzten guztiak dira. Kasu horietan, ekintza bakoitza bere exigiarritasun-erregimenarekin bat etorriko da aurrerago adierazten diren baldintzak betetzeari dagokionez.

17. artikulua. Bete beharreko baldintzak eta horien exigiarritasuna.

1. Plana dokumentu arauemailea denez, berak definitzen dituen zehaztapenak dira bete beharreko baldintzak. Zehaztapen horiek generikoki adierazita gera daitezke arau orokorretan edo espezifikoki modu grafikoan (planoak) edo idatziz (lursailen edo eraikuntza-unitateen fitxa partikularrak).

Artículo 14. Régimen general de derechos y deberes.

1. Los derechos y deberes de los propietarios son diversos y vienen definidos por la distinta posición y funcionalidad de los suelos o de los inmuebles dentro de la definición global y/o particular del Plan. Los derechos a la edificabilidad vienen dados por la definición volumétrica según el capítulo que regula la volumetría y, en su caso, en las edificabilidades dadas por las unidades integradas correspondientes.

2. Se materializan a través de las determinaciones sobre las actuaciones y acciones que se pueden realizar, siempre y cuando cumplan las condiciones (en diferentes aspectos) que señala el Plan.

Artículo 15. Sobre los tipos de actuaciones que se pueden llevar a cabo.

1. Se denominan actuaciones, en general, a los modos de gestión urbanística previstos en la legislación. De cara a la gestión, los tipos de actuaciones pueden ser:

a) Sistemáticas: Corresponden a unidades de ejecución dentro de unidades de actuación integradas. Se desarrollan en las normas urbanísticas particulares (fichas de unidades), en su caso.

b) Asistemáticas: Corresponde al resto de tipos de actuaciones y son mayoritarias en el PER.

Artículo 16. Sobre los tipos de acciones que se pueden llevar a cabo.

1. Se denominan acciones, en general, a los instrumentos de ejecución material que se pueden llevar a cabo. En cuanto a la materia de la acción, los tipos pueden subdividirse en lo siguiente:

2. Acciones urbanizadoras.

3. Acciones constructivas de nueva edificación que, a su vez, pueden ser:

- a) De nueva planta.
- b) De reedificación.
- c) De ampliación.

4. Acciones constructivas de rehabilitación que, a su vez, pueden ser:

- a) De reforma completa.
- b) De reforma parcial.
- c) De reforma menor.

5. Acciones de demolición.

6. Acciones no constructivas: Cambios de uso.

7. Acciones mixtas. Son todas aquellas que contienen dos o más acciones especificadas en los artículos anteriores. En estos casos, cada una de las acciones correspondientes se atenderá a su régimen de exigibilidad de las condiciones que se expresa más adelante.

Artículo 17. Sobre las condiciones a cumplir y su exigibilidad.

1. Las condiciones a cumplir son las determinaciones que el Plan, como documento normativo, define. Tales determinaciones pueden quedar expresadas de manera genérica en las normas generales o de manera específica de modo gráfico (planos) o por escrito (fichas particulares de parcelas o unidades edificatorias).

2. Zehaztapen horiek guztiek honako eduki hauek dituzte aztergai:

- a) Hirigintza-baldintzak, bereziki erabileren definizioan, eraikuntzen edo lursailen bolumentria orokorrean eta urbanizazioaren baldintzetan eragina dutenak.
- b) Ondare arkeologikoa zein arkitektonikoa kontserbatzeko baldintzak.
- c) Estetikari, akaberari eta apaindurari buruzko baldintzak.
- d) Eraikinen egiturari eta/edo eraikuntzari buruzko baldintzak.
- e) Bizigarritasunari buruzko baldintzak, garatu nahi den erabileraren arabera.
- f) Elbarritasunak dituzten pertsonentzako irisgarritasun-baldintzak.

3. Horiek guztiek dagozkien tituluak dituzte arau orokor hauetan. Alabaina, BPB baten konplexutasunak aholkatzen du adierazitako baldintzak exijitzeko bereizketa bereziak ezartzea. Hori dela-eta, motaren, baldintza motaren eta eraikuntza-unitate eta/edo lursail baten egoera jakinaren arabera, Planaren baldintzen exijigarritasuna ezartzen da (arau orokorretan edo partikularretan).

II. KAPITULUA. JARDUN MOTAK

18. artikulua. Hirigintza-kudeaketaren modalitateak eta jardun motak.

1. Hirigintza-kudeaketa honako hauek definitzen dute:
 - Jardun motak.
 - Jardun-sistemak.
2. Indarreko legerian aintzat hartutakoaren ondorioetarako, plangintza gauzatzeko modalitateei esaten zaie jardun mota. Jardun horiek, 2/2006 Legearen arabera, honelakoak izan daitezke:
 - Jardun bakartuak: Lursailen jabe diren subjektu pribatu edo publikoen berezko arlokoak dira.
 - Jardun integratuak: Arlo publikokoak izanik, gauzatzeko publikoko edo pribatuko erregimenean gara daitezke.
 - Zuzkidura publikoak gauzatzeko jardunak: Arlo publikokoak dira eta gauzatzeko publikoaren bidez garatzen dira.
 - Zuzkidura-jardunak: Legerian aurreikusitako kasu berezietarako.
3. Azken biak bereziak dira eta arau partikularretan zehazten dira, hala bada gorkio.
4. Jardun guztiek esparru bat dute jarduna bertan betetzeko. Esparru horri zona esaten zaio.

19. artikulua. Jardun bakartuak.

1. Dauden orubeak eraikitzea edo lursailen urbanizazioa osatzea dute helburu, orube izaera erdiets dezaten, artean ez badute, eta hiri-lurzoru finkatuan besterik ez.
2. Hortaz, legez ezarritako baldintzen arabera orube izaera duten lursailetan zuzenean eraiki ahal izango da, lizentzia eskatu eta ematen zaienean. Horretarako, alde zuzenetik mugak normalizatzeko prozesuak egin beharko dira, hala bada gorkio, edo dagozkien urbanizazio-obrak gauzatu.

2. Todas ellas versan sobre los siguientes contenidos:

- a) Sobre condiciones urbanísticas, que afectan especialmente a la definición de usos, a la volumetría general de las edificaciones o parcelas y a las condiciones de la urbanización.
- b) Sobre condiciones de conservación del patrimonio, tanto arqueológico como arquitectónico.
- c) Sobre condiciones estéticas, de acabado y ornato.
- d) Sobre condiciones estructurales y/o constructivas de los edificios.
- e) Sobre condiciones de habitabilidad, según el uso que se pretende.
- f) Sobre condiciones de accesibilidad por personas con minusvalías.

3. Todas ellas son motivo de los correspondientes títulos de las presentes Normas Generales. Sin embargo, la complejidad de un PER aconseja establecer distinciones peculiares para la exigibilidad de las condiciones dichas. Por ello, dependiendo del tipo, del tipo de condición y de la situación determinada de una unidad edificatoria y/o parcela, se establece (bien sea en las normas generales o en las particulares) la exigibilidad de las condiciones del Plan.

CAPITULO II. TIPOS DE ACTUACIONES

Artículo 18. Modalidades de gestión urbanística y tipos de actuaciones.

1. La gestión urbanística queda definida por lo siguiente:
 - El tipo de actuación.
 - El sistema de actuación.
2. A efectos de lo contemplado en la legislación vigente, se denominan tipos de actuación a las modalidades para la ejecución del planeamiento. Tales actuaciones, según la ley 2/2006, pueden ser:
 - Actuaciones aisladas, que pertenecen a la esfera propia de los sujetos privados o públicos propietarios de las parcelas.
 - Actuaciones integradas, que, perteneciendo a la esfera pública, pueden desarrollarse en régimen de ejecución pública o privada.
 - Actuación de ejecución de dotaciones públicas que pertenece a la esfera pública y se desarrollan mediante ejecución pública.
 - Actuaciones de dotación para los casos especiales previstos en la legislación.
3. Las dos últimas son especiales y se especifican en las Normas Particulares en su caso.
4. Todas las actuaciones tienen un ámbito donde se ejerce la actuación. Tal ámbito se denomina Zona.

Artículo 19. Actuaciones aisladas.

1. Tienen por objeto edificar los solares existentes o completar la urbanización de las parcelas a fin de que alcancen la condición de solar, si aún no lo tuvieran y sólo en el suelo urbano consolidado.
2. En consecuencia, se podrá edificar directamente en aquellas parcelas que tengan la condición de solar de acuerdo con las condiciones establecidas legalmente mediante la petición de licencia y concesión de la misma, realizando previamente en su caso procesos de normalización de linderos o la ejecución de las obras de urbanización que correspondan.

3. Kontrakorik adierazten ez bada, Plan osoaren esparrua jardun bakartuko zona izango da, jardun integratuko zonak, zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduneko zonak eta zuzkidura-jarduneko zonak izan ezik.

19. bis artikulua. Jardun bakartu bereziak.

1. Aurreko artikulukoaren helburu bera du, baina kasu honetan jardun horrek elkarren ondoko bi lursail bateratzea dakar, aurrealdea kaleari begira duena bata eta etxadi patioaren barnealdekoa bestea, lursail horiek normaltasun historikoarekin bat ez datorren banantze anomalo baten emaitza direnean.

2. Kasu horietan, barnealdeko lursailaren jabeak nahitaez bateratu beharko du lursaila kanpoaldeko edo aurrealdea kaleari begira duen lursailaren jabeek jarduten dutenean. Kasu horietan honela jardungo da:

a) Barnealdeko lursailaren jabeak eraikuntza berriaren eraikigarritasunaren zati bat hartzeko eskubidea izango du, barnealdeko lursailen behe-solairuan eraikin bat eraiki izanak ekarriko lukeen azaleraren berdina. Dena dela, eraikigarritasun hori dirutan emango zaio, lurzoruaren hondar-balioa hartuz balioztat, hondar-metodo estatikoaren bidez aurkitua, eta arestian aipatutako eraikigarritasunean eta barnealdeko lursail horiei eman zaien merkataritza-erabileran oinarrituta.

b) Kaleari begira dagoen lursailaren jabeak lizentzia eskatzen duenean, barnealdeko lursailaren jabeari dagokion eraikuntza-aprobetxamenduaren balorazioa aurkeztuko du beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

c) Balorazio hori barnealdeko lursailaren jabeari helaraziko zaio, hilabeteko epean aurkez dezan eraikin berrian dagoen eraikigarritasunaren balorazioa.

d) Bi txostenak aztertu ondoren, barnealdeko lursailaren jabeari dagokion eraikigarritasunaren diru-balioa definituko duen ebazpena emango du udalak.

e) Eraikitze lizentzia ezin izango da eman d) paragrafoan ezarritako zenbatekoa ordaindu izana udalaren aurrean egiaztatzen ez den artean.

20. artikulua. Jardun integratuak eta gauzatzeko-unitateak.

1. Jardun integratutzat jotzen dira, urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoruan, jardun bakartuena baino urbanizazio-maila handiagoa behar duten lur-eremuetan egiten direnak, urbanizatzeko jardun-programa bakar baten arabera orube bat edo gehiago eratzeko.

2. Jardun integratuetako zonak, kontrakorik adierazi ezean, urbanizatzeko jardun baten esparru espaziala eratzen duten gauzatzeko-unitateetan ebazten dira. Gauzatzeko-unitate bakoitzerako aurrerago adierazten diren jardun-sistematariko bat hartuko da.

21. artikulua. Gauzatzeko-unitateak eta multzo tipologikoak.

1. Planak gauzatzeko-unitate jarraituak edo etenak zehaztu eta mugatu ahal izango ditu hiri lurzoru finkatu gabean eta lurzoru urbanizagarri sektORIZATU antolatuan.

2. Unitate horietan modu partikularizatuan zehazten da kalifikazioari, antolamendu bolumetrikokoaren zehaztapenei eta esparru horien kudeaketari dagokien guztia. Kokatzen diren lurzoru motei dagozkien hirigintza-arau partikularretan adierazita dago.

3. Multzo tipologiko esaten zaie gauzatzeko-unitateak edo zonak azpizatituta era daitezkeen multzoei. Normalean eraikuntza-multzo homogeneoek edo tokiko sistemen gisako elementu

3. Si no se señala lo contrario, el ámbito de todo el Plan, a excepción de las Zonas de actuación integrada, de dotaciones públicas y de actuación de dotación, será Zona de Actuación Aislada.

Artículo 19 bis. Actuaciones aisladas especiales.

1. Tienen por objeto lo mismo que en el artículo anterior, a excepción de que tal actuación supone la asimilación de dos parcelas contiguas, una con frente a calle y la otra meramente interior de patio de manzana, cuando tales parcelas hayan sido el resultado de una segregación anómala que no corresponde con la normalidad histórica.

2. En estos casos, el propietario de la parcela interior vendrá obligado a asimilar la parcela cuando actúen los de la parcela exterior o con frente a calle. En tales casos se actuará de esta forma:

a) El propietario de la parcela interior tendrá derecho a una parte de la edificabilidad de la nueva edificación igual a la superficie que supondría haber construido en esta parcela interior una edificación en planta baja. Ahora bien esta edificabilidad se satisfará en dinero, tomando como valor el valor residual de suelo, hallado por el método residual estático, y en base a la edificabilidad anteriormente mencionada y al uso comercial al que han sido destinadas estas parcelas interiores.

b) Cuando el propietario de la parcela que da a la calle solicite licencia, presentará junto con la documentación necesaria, una valoración del aprovechamiento edificatorio que le corresponde al propietario de la parcela interior.

c) Esta valoración será trasladada al propietario de la parcela interior, para que en el plazo de un mes, presente una valoración de la edificabilidad que le corresponde en el nuevo edificio.

d) A la vista de los dos informes, el Ayuntamiento emitirá una resolución en la que defina el valor monetarizado de la edificabilidad que le corresponde al propietario de la parcela interior.

e) La licencia de edificación no se podrá otorgar hasta que se acredite ante el Ayuntamiento el pago de la cantidad establecida en el párrafo d).

Artículo 20. Actuaciones integradas y unidades de ejecución.

1. Se consideran actuaciones integradas las que se realizan, en suelo urbano no consolidado por la urbanización, en los terrenos que precisan de un grado de urbanización superior al de las actuaciones aisladas, para dar lugar a uno o varios solares conforme a un único programa de actuación urbanizadora.

2. Las Zonas de las actuaciones integradas se resuelven, si no se indica lo contrario, en unidades de ejecución que constituyen el ámbito espacial de una actuación urbanizadora. Para cada unidad de ejecución se adoptará uno de los sistemas de actuación que se refieren más adelante.

Artículo 21. Unidades de ejecución y agrupaciones tipológicas.

1. El Plan podrá determinar y delimitar Unidades de Ejecución continuas, o discontinuas, en suelo urbano no consolidado y en suelo urbanizable sectorizado ordenado.

2. En ellas se determinan particularizadamente lo que concierne a la calificación, a las determinaciones de ordenación volumétrica y a la gestión en esos ámbitos. Queda expresado en las Normas Urbanísticas particulares correspondientes a las clases de suelo en que se sitúan.

3. Se denominan agrupaciones tipológicas a los conjuntos en que pueden subdividirse las Unidades de ejecución o las Zonas, y son formadas normalmente por grupos edificatorios

bereziek osatzen dituzte. Kalifikazioa eta, hala badagokio, bolumetriaren zehaztapenak partikularizatzeko bitarteko gisa erabiltzen dira.

22. artikulua. *Jardun-sistemak.*

1. Indarreko legeriaren arabera honako sistema hauek aurreikusten dira:

a) Gauzate publikoko erregimenean: Lankidetzeta-sistema eta nahitaez desjabetzeko sistema.

b) Administrazio-emakida bidezko gauzate pribatuko erregimenean: Eragile urbanizatzailearen sistema eta ituntze-sistema.

2. Gauzate-unitate bakoitzerako, indarreko legerian aurreikusitako jardun-sistematariko edozein ezarriko du Planak. Espresuki zehazten ez bada, aukeratutakoa ituntze-sistema dela ulertuko da.

3. Aukeratutako jardun-sistema dena dela ere, lursailak berriz zatitzeko proiektua izango da kudeaketa-tresna.

23. artikulua. *Jardun eta ekintzetarako epeak.*

1. Oro har, jardunetarako epea zortzi urtekoa izango da, baldin eta arau partikularretan kontrakorik adierazten ez bada. Nolanahi ere, honako zehaztasun hauek dute lehentasuna:

a) Oin berria: Jardun-programak ezartzen dituenak. Halakorik ezean, lizentzia eskatu beharko da, luzeen jota ere, urbanizazio-obrak amaitzen direnetik hasi eta urtebeteko epean. Lizentzia ematen den egunaren biharamunetik hasi eta 3 hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira obrak. Obra-amaierako ziurtagiria obra hasten den egunaren biharamunetik hasi eta 24 hilabeteko epean bideratu beharko da.

b) Berreraikitzea edo ordezte: Higiezinak eraisten direnean ordeko eraikuntza bermatuko da, eta eraisteko lizentzia alde aurretik eraikitze lizentzia lortzearen baldintzapean emango da. Lizentzia ematen den egunaren biharamunetik hasi eta 3 hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira obrak. Obra-amaierako ziurtagiria obra hasten den egunaren biharamunetik hasi eta 24 hilabeteko epean bideratu beharko da.

c) Handitzea: Ez du eperik. Dena den, lizentzia ematen denean, egun horren biharamunetik hasi eta 3 hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira obrak.

2. Eraberritze osoari ezinbestean loturik dauden eraikuntza-unitateek birgaitzeko proiektua aurkeztu beharko dute dokumentu hau behin betiko onartzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi urteko epearen barruan. Lizentzia ematen den egunaren biharamunetik hasi eta 3 hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira obrak. Obra amaierako ziurtagiria obra hasten den egunaren biharamunetik hasi eta 24 hilabeteko epean bideratu beharko da.

III. KAPITULUA. EKINTZA MOTAK ETA BALDINTZEN EXIJIGARRITASUNA

1. ATALA. Urbanizatzeko ekintzak

24. artikulua. *Definizioa eta motak.*

1. Urbanizatzeko ekintzak lehendik dauden urbanizazio-elementuak eta hiri-altzariak kontserbatzeko, zaharbertzeko, eraberritzeko edo handitzeko obrak eta Planak espresuki definitzen dituen lehen aldiz ezartzeko obrak izango dira. Honela sailkatzen dira:

homogéneos o elementos especiales como los sistemas locales. Se utilizan como medio de particularizar la calificación y las determinaciones de volumetría, en su caso.

Artículo 22. *Sistemas de actuación.*

1. Según la legislación vigente, los sistemas previstos son los siguientes:

a) En régimen de ejecución pública: Sistema de cooperación y sistema de expropiación forzosa.

b) En régimen de ejecución privada mediante concesión administrativa: Sistema de agente urbanizador y sistema de concertación.

2. Para cada unidad de ejecución, el Plan establecerá cualquiera de los sistemas de actuación previstos en la legislación vigente, entendiéndose, que de no especificarse expresamente, el sistema elegido será el de concertación.

3. Con independencia del sistema de actuación elegido, el instrumento de gestión será el Proyecto de Reparcelación.

Artículo 23. *Plazos para actuaciones y acciones.*

1. Con carácter general el plazo para las actuaciones será de ocho años, mientras no se indique lo contrario en las normas particulares. En todo caso tienen prelación las precisiones siguientes:

a) Nueva planta: Las que establezca el programa de actuaciones. En su defecto deberá solicitarse licencia como máximo en 1 año a contar desde la finalización de las obras de urbanización. El inicio de las obras deberá realizarse dentro del periodo de 3 meses a contar desde el día siguiente al otorgamiento de la licencia. El certificado final de obras deberá evacuarse en el periodo de 24 meses a contar desde el día siguiente al inicio de la obra.

b) Reedificación o sustitución: Se garantizará la edificación sustitutoria en los derribos de inmuebles, condicionándose la concesión de la licencia de derribo a la previa obtención de la de edificación. El inicio de las obras deberá realizarse dentro del periodo de 3 meses a contar desde el día siguiente al otorgamiento de la licencia. El certificado final de obras deberá evacuarse en el periodo de 24 meses a contar desde el día siguiente al inicio de la obra.

c) Ampliación: No tienen plazo. No obstante, concedida la licencia el inicio de las obras deberá realizarse dentro del periodo de 3 meses a contar desde el día siguiente al otorgamiento de la licencia.

2. Las unidades edificatorias sujetas necesariamente a reforma completa, deberán presentar proyecto de rehabilitación dentro del periodo de dos años contados a partir del día siguiente de la aprobación definitiva de este documento. El inicio de las obras deberá realizarse dentro del periodo de 3 meses a contar desde el día siguiente al otorgamiento de la licencia. El certificado final de obras deberá evacuarse en el periodo de 24 meses a contar desde el día siguiente al inicio de la obra.

CAPITULO III. TIPOS DE ACCIONES Y EXIGIBILIDAD DE LAS CONDICIONES

SECCION 1. Acciones urbanizadoras

Artículo 24. *Definición y tipos.*

1. Las acciones urbanizadoras consistirán en obras de conservación, restauración, reforma o ampliación de los elementos de urbanización y del mobiliario urbano existentes, así como aquellas otras de primer establecimiento que vengan definidas expresamente por el Plan. Se clasifican en lo siguiente:

a) Urbanizazioa kontserbatzeko obrak (mantentzea).

— Espazio librea baldintza egokietan mantentzera zuzendutako obrak dira. Espazio libre naturaletan sastraka kentzea eta haiek garbitzea helburu duten jardunak ere kategoria honetan sartzen dira.

b) Urbanizazioa zaharberritzeko obrak (berrurbanizazioa).

— Hondatuta geratu diren edo jatorrizko funtzioa egoki betetzen ez duten elementuak edo akaberak zaharberritzera edo berrezartzera soilik zuzentzen diren hiri-eragiketak dira berrurbanizatzeko obrak. Berrurbanizatzeko obratzat hartzen dira, halaber, espazio publikoa egokitzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea helburu dutenak.

c) Urbanizazioa eraberritzeko obrak (birmoldatzea).

— Espazio publikoaren kanpoaldean funtsezko aldaketa dakarten baina lerrokadurak aldatzen ez dituzten hiri-eragiketak dira birmoldatzeko obrak. Zehazki, funtsezko aldaketak onartzen dira bide, espaloi eta aparkalekuen antolamenduan, lorategi horniduran eta berdeguneen tratamenduan, baita espazio publikoa aldatzen duen diseinu berri batean oinarrituta oinezkoentzako bihurtzea ere. Birmoldatzeko obratzat hartuko da, halaber, espazio publikoaren antolamendua aldatzea dakarren azpiegiturak ezartzea edo berrezartzea.

d) Urbanizazioa lehen aldiz ezartzeko obrak (berregiturazioa).

— Lursail-egitura aldatu eta lerrokadura ofizial berriak proposatzen dituzten edo lehendik dauden eraikuntza-lerrokadurak funtsean zuzentzen dituzten eta azpiegiturak oro har instalatu edo kentzen dituzten hiri-eragiketak dira berregituratzeko obrak. Normalean gauzatze-unitateetan sartuta geratzen dira.

25. artikulua. Aplikatzekoa den erregimena.

1. Urbanizatzeko ekintza guztietan Plan honetan eta gaiari buruzko indarreko legerian ezarritako baldintzak exijituko dira, inolako lehentasunik diskriminatu gabe.

2. Oro har, mantentzeko eta berrurbanizatzeko obrak Hirigune Historikoaren esparruan dagoen urbanizazio osoan baimenduta daude, eta urbanizazio-arruaren baldintzekin bat etorriko dira.

3. Birmoldatzeko obrak baimendu egin daitezke edo beharrezkoak izan daitezke, dagozkien fitxetan adierazitakoaren arabera. Azken kasu hori ekonomia- eta finantza-azterketan aurreikusten da.

4. Berregituratzeko obrei dagokienez, besteak ez bezala, BPBak espresuki definitzen ditu obra horiei loturik dauden esparruak, horiek gauzatzeko baldintzak eta aplikatzekoa den hirigintza-erregimena.

2. ATALA. Eraikuntza berriko eraikitze ekintzak

26. artikulua. Definizioa eta motak.

1. Eraikuntza berriko eraikitze ekintzat jotzen dira lehendik ez zeuden eraikuntzak eratzen dituzten obrak, dela orubea hutsik zegoelako, dela lehendik zegoen eraikuntza erabat ordeztzen delako, dela lehendik dagoena handitzeko obra delako. Hiru mota bereizten dira:

2. Oin berrikoak. Oin berriko ekintzak dira lehendik ez zeuden eraikuntzak eratzen dituzten obrak, orubea hutsik dagoelako edo lehendik dagoen eraikin bat eraitsi eta ordeztzen delako bere bolumetria funtsean aldatuta (erabilera nagusia aldatuta ala ez).

a) Obras de conservación de la urbanización (mantenimiento).

— Son las obras destinadas a mantener el espacio libre en correctas condiciones mediante. También quedan incluidas en esta categoría las actuaciones que tienen por objeto el desbroce y limpieza de espacios libres de carácter natural.

b) Obras de restauración de la urbanización (reurbanización).

— Se entiende por reurbanización las operaciones urbanas que atienden exclusivamente a la restauración o restitución de elementos o acabados que hayan quedado deteriorados o no cumplan adecuadamente su función original. También se consideran como obras de reurbanización las que tengan como objetivo la adaptación del espacio público y supresión de barreras arquitectónicas.

c) Obras de reforma de la urbanización (remodelación).

— Se entiende por remodelación las operaciones urbanas que suponen un cambio sustancial en el aspecto exterior de los espacios públicos, sin modificación de alineaciones. Concretamente se permiten cambios sustanciales en la ordenación de viarios, aceras, aparcamientos, ajardinamiento y tratamiento de zonas verdes, peatonalización en base a un nuevo diseño que modifica el espacio público. Se considerarán también obras de remodelación la colocación o reposición de infraestructuras acompañada de la modificación de la ordenación del espacio público.

d) Obras de primer establecimiento de la urbanización (reestructuración).

— Se entiende por reestructuración las operaciones urbanas que supone un cambio en el parcelario, proponiendo nuevas alineaciones oficiales, o rectifica sustancialmente las alineaciones edificatorias existentes, instalación o remoción general de infraestructuras. Normalmente quedan incluidas en unidades de ejecución.

Artículo 25. Régimen aplicable.

1. En todas las acciones urbanizadoras se exigirán las condiciones establecidas en este Plan, así como en la legislación vigente al respecto, sin discriminar ningún tipo de prioridad.

2. Con carácter general las obras de mantenimiento y reurbanización están permitidas en toda la urbanización existente en el ámbito del Casco Histórico y se ajustarán a las condiciones de las normas de urbanización.

3. Con respecto a las obras de remodelación puede permitirse o ser necesarias, según queda expresado en las fichas correspondientes. Este último caso se prevé en el estudio económico financiero.

4. Con respecto a las obras de reestructuración y a diferencia de las otras, el PER define expresamente los ámbitos sujetos a estas obras, las condiciones para su ejecución y el régimen urbanístico aplicable.

SECCION 2. Acciones constructivas de nueva edificación

Artículo 26. Definición y tipos.

1. Se consideran acciones constructivas de nueva edificación las obras que constituyen construcciones no existentes con anterioridad, sea porque el solar estaba vacante, sea porque se sustituye plenamente la edificación existente, sea porque se trata de una ampliación de lo existente. Se distinguen tres tipos:

2. De nueva planta. Son acciones de nueva planta las obras que constituyen construcciones no existentes con anterioridad porque el solar está vacante o porque se sustituye (por demolición previa) una edificación existente alterando sustancialmente su volumetría, cambiando o no su uso principal.

3. Berreraikitzeak edo ordeztekoak. Berreraikitzeo ekintzak dira lehendik dagoen eraikin bat bere bolumentria (forma bolumentrikoa) zehazki ordezten duten eraikuntzak erazten dituzten obrak.

4. Handitzeak. Handitzeko ekintzak dira lehendik dagoen eraikin baten bolumentria hura eraitsi gabe handituz eraikuntzak erazten dituzten obrak.

27. artikulua. Aplikatzekoa den erregimena.

1. Oin berriko eraikitzeo ekintza guztietan Plan honetan eta gaiari buruzko indarreko legerian ezarritako baldintza guztiak exijituko dira.

2. Berreraikitzeo ekintzetan ere Plan honetan eta gaiari buruzko indarreko legerian ezarritako baldintza guztiak exijituko dira, katalogatutako eraikin bat berreraikitzen denean izan ezik (kasu hori emango balitz). Kasu horretan lehen zegoen bezalaxe berreraikitzeo da, araudi-partikularrean bat ez etortze gisa adierazitako piezak eta elementuak ezabatuta.

3. Handitzeko ekintzetan ere Plan honetan eta gaiari buruzko indarreko legerian ezarritako baldintza guztiak exijituko dira, baina handitutako zonan besterik ez du eraginik izango. Handitzea eraberritze orokorreko edo partzialeko obrak behar dituen eraikin batean egiten bada, handitzeko obren aurretik edo aldi berean egin beharko dira eraberritzeko obra horiek.

4. Altueraren ondoriozko bat ez etortzearen kasuan, araudi partikularrak adierazten ez badu ere, ezin izango dira handitzeko obrak egin bat ez etortze hori konpontzen ez den artean.

3. ATALA. Eraberritze osoko birgaitzeko eraikuntza ekintzak

28. artikulua. Definizioa.

1. Eraikinaren zati handi bat aldatzera zuzendutako obrak dira, haren egitura, barne banaketa, bizigarritasun-baldintzak eta abar hobetzeko, hori guztia proiektu bateratu batean. Ekintza mota honek eraikinaren elementu komunetan esku hartzea dakar beti; bestela, eraberritze partzialtzat joko da.

2. Alabaina, eraikuntza berrizat hartuko dira (eraikuntza-unitateen fitxetan RNE exijigarritasun-mailarekin adieraziak) eta, horrenbestez, erregimen horretan sartuko dira, eraikin katalogatu gabeetan egiten diren eraberritze osoko ekintzak, baldin eta:

a) Eraikinaren sostengu-egitura aldatzen badute, egitura horren %60 edo gehiago aldatuta edo egiturazko sostengulerroak %10 baino gehiago aldatuta.

b) Obren kostua eraikina osorik berrezartzearen balioaren %60 baino handiagoa bada.

3. Babes-maila berezia, ertaina eta oinarrikoa duten eraikinetan, eraberritze osoko obrek arau hauen IV. tituluaren III. atalean ezarritakoa bete beharko dute.

29. artikulua. Erregimena.

1. Eraberritze osoko birgaitzeko eraikuntza-ekintzetan Plan honetan ezarritako baldintza guztiak exijituko dira, guztizko lerrokadurak eta altuerak (hots, egituraren lerro orokorrek) eta eraikuntza-unitateen fitxetan zehazki salbuesten dena izan ezik. Hau da, Fitxetan RC, RP1 eta RP2 gisa adierazitakoa eta Planaren baldintza guztiak bete beharko dituzte, guztizko lerrokadurak eta altuerak izan ezik.

3. De reedificación o sustitución. Son acciones de reedificación las obras que constituyen construcciones que sustituyen exactamente en su volumetría (su forma volumétrica) a un edificio existente.

4. De ampliación. Son acciones de ampliación las obras que constituyen construcciones aumentando la volumetría de un edificio existente sin demolerlo.

Artículo 27. Régimen aplicable.

1. En todas las acciones constructivas de nueva planta se exigirán todas las condiciones establecidas en este Plan, así como en la legislación vigente al respecto.

2. En caso de reedificación también se exigirán todas las condiciones establecidas en este Plan, así como en la legislación vigente al respecto, salvo en el caso de reedificación de un edificio catalogado (si se debiera dar el caso) en el que se reedificará tal y como estaba anteriormente, eliminando las piezas y elementos señalados como discordancias en la normativa particular.

3. En las acciones de ampliación se exigirán también todas las condiciones del Plan así como la legislación vigente al respecto, afectando exclusivamente a la zona ampliada. Si se diera la ampliación en el caso de que un edificio precise obras de reforma general o parcial, la ampliación deberá ir siempre vinculada a la ejecución previa o simultánea de éstas.

4. En el caso de discordancia por altura, aunque la normativa particular no lo indique, no se permitirán obras de ampliación en tanto en cuanto no se solucione la citada discordancia.

SECCION 3. Acciones constructivas de rehabilitación de reforma completa

Artículo 28. Definición.

1. Son obras dirigidas a la alteración de gran parte del edificio para mejorar su estructura, distribución interior, condiciones de habitabilidad, etc., todo ello como proyecto unitario. Este tipo de acción siempre supone intervención en elementos comunes del edificio; en caso contrario se considerará reforma parcial.

2. Sin embargo, se considerará nueva edificación (señaladas en las fichas de unidades edificatorias con el grado de exigibilidad RNE) y por tanto entrará en dicho régimen, las acciones de reforma completa que, en edificios no catalogados:

a) Bien alteren la estructura portante del edificio, sustituyendo tal estructura en más de un 60% o alterando las líneas estructurales portantes en más de un 10%.

b) Bien el costo de las obras supere el 60% del valor de reposición completa del edificio.

3. En aquellos edificios con grado de protección, especial, media y básica, las obras de reforma completa deberán adecuarse a lo establecido en el Título IV, Sección III de la presente Norma.

Artículo 29. Régimen.

1. En las acciones constructivas de rehabilitación de reforma completa se exigirán todas las condiciones establecidas en este Plan, a excepción de las alineaciones y alturas totales (es decir las líneas generales de la estructura) y lo que se exceptúe concretamente en las fichas de unidades edificatorias. Es decir, deberán cumplir lo señalado en las fichas como RC, RP1 y RP2 y todas las condiciones del Plan, a excepción de alineaciones y alturas totales.

2. Eraikuntza berrikotzat (RNE) jotzen diren eraberritze osoko birgaitzeko eraikuntza ekintzetan Plan honetan ezarritako baldintza guztiak exijituko dira, lerrokadurak eta eraikuntza-unitateen fitxetan zehazki salbuesten dena izan ezik. Hau da, Fitxetan RNE, RC, RP1 eta RP2 gisa adierazitakoa eta Planaren baldintza guztiak bete beharko dituzte, lerrokadurak izan ezik.

4. ATALA. Eraberritze partzialeko birgaitzeko eraikuntza ekintzak

30. artikulua. Definizioa.

1. Eraikinaren zati bat aldatzera zuzendutako obrak dira, aldatzen direnak eraikuntzaren piezak direnean. Eraikuntzaren pieza unitate funtzionala osatzen duen zatia da. Piezan sartuta daude bere funtzionamendu onerako beharrezkoak diren elementu guztiak. Zalantzarik izanez gero, dagokion udal-teknikariaren interpretazioak emango du pieza edo elementu baten definizioa. Piezak honako hauek dira:

— Egitura: Eraikinari egonkortasuna ematen dioten elementuen multzoa da. Zimenduak, pilareak edo karga-hormak, habeak eta forjatua dira elementu horiek. Estalkiaren egitura osatzen duten elementuak kanpo uzten dira.

— Estalkia: Eraikuntzaren teilatua osatzen duten elementuen multzoa da. Honako elementu hauek osatzen dute: Estalkiaren forjatua, habe nagusiekin eta habexkekin (kontra-goihabeak), eraikinaren pilareekin uztartu arte, estalkiko estaldura-elementuak (teílak), teílalu-hegalak, azken forjatu horizontalaren eta estalkiaren beheko aldearen arteko espazioak, mansardak (teílaluaren gainetik altxatzen den leihoa hartuz mansardatzat) eta estalkian egindako terraza modukoak.

— Fatxada: Eraikuntzaren itxitura bertikala osatzen duten elementuen multzoa da. Osatzen duten elementuak honako hauek dira: Itxitura bertikala, hainbat geruzarekin, kanpoaldeko akaberak, fatxadan kokatutako kanaletak eta teílalu hodiak, balkoiak, gorputz itxiak, eraikinera sartzeko ateak eta dekorazio elementuak. Fatxada nagusia, bigarren mailakoa edo atzealdekoa izan daiteke. Nagusia sarrera nagusikoa da; atzealdekoa lursail pribatu, karkaba edo barne patioetara begira dagoena da; gainerakoak bigarren mailakoak dira.

— Banaketa-eremu komunak: Etxebizitzetara eta eraikinera sartzeko eremu komunak osatzen dituzten elementuak eta komunikazio bertikaleko elementuak osatzen duten multzoa da: Ezkaratza, eskailerak, igogailuak.

— Patioa: Elementu komunak eta etxebizitzetako gelak aireztatzeko eta argiztatzeko eraikinean hutsuneak osatzen dituzten elementuen multzoa da.

Hauk dira bere elementuak: Itxitura bertikala, hainbat geruzarekin eta akaberekin, eta patioaren estalkia.

— Instalazioak: Argiztapen artifizialaren, egokitzapen termikoaren, uren hustuketaren eta telekomunikazioen alderdietan eraikinaren funtzionamendu ona ahalbidetzen duten hargunelementuak.

— Etxebizitzak eta/edo lokalak: Finka erregistratzen bakoitzaren barneko eta kanpoko zatiketek, zoladurek eta horien erregulazio-geruzek, barne-instalazioek, arotzeriek eta baoek osatzen duten multzoa. Lursailak barnealdean espazio librea badu, bertan egin behar diren obrak dagokion etxebizitza edo lokalarekin lotuko dira.

2. En las acciones constructivas de rehabilitación de reforma completa que sean consideradas nueva edificación (RNE), se exigirán todas las condiciones establecidas en este Plan, a excepción de las alineaciones y lo que se exceptúe concretamente en las fichas de unidades edificatorias. Es decir, deberán cumplir lo señalado en las fichas como RNE, RC, RP1 y RP2 y todas las condiciones del Plan, a excepción de alineaciones.

SECCION 4. Acciones constructivas de rehabilitación de reforma parcial

Artículo 30. Definición.

1. Son obras dirigidas a la alteración de parte del edificio cuando se trata de piezas de la edificación. Se entiende por pieza de la edificación aquella parte que forma una unidad de tipo funcional, incluyéndose en la pieza todos los elementos necesarios para su buen funcionamiento. En caso de duda, la definición de una pieza o elemento vendrá dada por la interpretación del técnico municipal correspondiente. Las piezas son las siguientes:

— Estructura: Es el conjunto de elementos que proporcionan estabilidad al edificio, dichos elementos son los siguientes: cimentación, pilares o muros de carga en su caso, vigas y forjados. Se excluyen los elementos que forman parte de la estructura de la cubierta.

— Cubierta: Es el conjunto de elementos que forman el tejado de la edificación, formado por los siguientes elementos: Forjado de cubierta con sus vigas principales y viguetas secundarias (correas) hasta su entronque con los pilares del edificio, elementos de cubrición de la cubierta (tejas), aleros, los espacios entre el último forjado horizontal y la cara inferior de la cubierta, las mansardas en su caso (entendiendo por mansarda la ventana que se levanta por encima del tejado), los aterrazamientos de la cubierta en su caso.

— Fachadas: Es el conjunto de elementos que forman parte del cerramiento vertical de la edificación. Los elementos que lo forman son los siguientes: Cerramiento vertical con sus diferentes capas, acabados exteriores, canaletas y canalones situados en la fachada, balcones, cuerpos cerrados, puertas de acceso a la edificación y elementos decorativos. Puede ser fachada principal, secundaria o trasera. La principal es la de acceso principal; la trasera es la que da a parcelas privadas, cárcavas o patios interiores; la o las secundarias son el resto.

— Zonas comunes de distribución: Es el conjunto de elementos que forman parte de las zonas comunes de acceso a las viviendas, acceso a la edificación y elementos de comunicación vertical: Portal, escaleras, ascensores.

— Patios: Es el conjunto de elementos que forman vacíos en la edificación para la ventilación e iluminación de elementos comunes y estancias de las viviendas.

Sus elementos son: Cerramiento vertical con sus diferentes capas y acabados y cubrición del patio.

— Instalaciones: Elementos de acometida que permiten el buen funcionamiento del edificio en aspectos de iluminación artificial, acondicionamiento térmico, evacuación de aguas y telecomunicaciones.

— Viviendas y/o locales: Conjunto de particiones interiores y exteriores, solados con sus capas de regulación, instalaciones internas, carpinterías y huecos de cada finca registral. En el caso de que la parcela disponga de espacio libre interior las obras que deban efectuarse en esta se asociarán a la vivienda o local a la que pertenezcan.

2. Pieza pribatiboen konturako handitzerik ez dakarten ekintza guztiek bi esku-hartze maila izan ditzakete (pieza pribatiboen azalera murriztea dakartenak 1. mailakotzat joko dira beti):

a) 1. maila. Pieza komunetan, kostua eraikinaren azalera eraikiarekin zatitzearen emaitza pieza osorik berrezartzeko obraren %60 baino handiagoa denean I. Eranskineko baremoen arabera. Etxebizitza edo lokaletan, kostua etxebizitzaren azalarekin zatitzearen emaitza pieza osorik berrezartzeko obraren %60 baino handiagoa denean I. eranskineko baremoen arabera.

b) 2. maila. Pieza komunetan, kostua eraikinaren azalera eraikiarekin zatitzearen emaitza pieza osorik berrezartzeko obraren %20 baino handiagoa eta %60 baino txikiagoa denean I. eranskineko baremoen arabera. Etxebizitza edo lokaletan, kostua etxebizitzaren azalarekin zatitzearen emaitza pieza osorik berrezartzeko obraren %20 baino handiagoa eta %60 baino txikiagoa denean I. eranskineko baremoen arabera.

3. Horiek guztiak, era berean, beste modu honetan sailka daitezke:

a) Planean egokitzeko seinalatuta dauden elementuak eraginpean hartzen dituztenak.

Elementuok arau orokorretan, antolamendu-planoetan eta fitxetan seinalatzen dira.

b) Planean seinalatuta dauden elementuak eraginpean hartzen ez dituztenak.

31. artikulua. Erregimena.

1. Babes-baldintzak beti errespetatuko dira, bai arau orokorretan bai partikularretan definitutakoak, grafiatutakoak zein fitxetan xehatutakoak.

2. Eremu komunetan larrialdietako argiak instalatuko dira.

3. Gainerako baldintzak beti errespetatuko dira eraberritzearen ondorioz lor daitezkeen espazio berrietan. Baina baldintzak betetzen ez dituzten lehendik dauden espazioetan, honakoen arabera exijituko dira baldintzak:

a) Planean seinalatutako elementuak eraginpean hartzen dituzten obretan:

— 1. mailako obrak: Dagokien piezaren fitxetan espresuki zehaztutako RP1 eta RP2 gisa kalifikatutako baldintzak exijituko dira.

— 2. mailako obrak: Dagokien piezaren fitxetan espresuki zehaztutako RP2 gisa kalifikatutako baldintzak exijituko dira.

— Kostua eraikina osorik berrezartzeko kostuaren %10 baino handiagoa bada, b) atalean adierazitakoa kontuan hartuko da.

b) Planean seinalatutako elementuak eraginpean hartzen ez dituzten obretan:

— 1. mailako obrak: Obren osotasunaren kostua eraikina osorik berrezartzeko kostuaren %10 baino handiagoa denean, betiere obrek pieza komunak (etxebizitzak edo lokalak ez beste guztiak) eraginpean hartzen badituzte, fitxetan espresuki lehenasunez kotzat («X») jotzen diren baldintzak exijituko dira.

— 2. mailako obrak: Eraberritutakoa arau hauekin bat etortzea exijituko da.

2. Todas aquellas acciones que no supongan ampliación a costa de las piezas privativas, pueden tener dos niveles de intervención (las que suponen disminución de superficie de piezas privativas serán siempre consideradas del nivel 1):

a) Nivel 1. En las piezas comunes cuando su costo dividido por la superficie construida del edificio supere el 60% de la obra de reposición completa de la pieza según baremos del Anexo I. En las viviendas o locales cuando su costo dividido por la superficie de la vivienda o local supere el 60% de la obra de reposición completa de la pieza según baremos del Anexo I.

b) Nivel 2: En las piezas comunes cuando su costo dividido por la superficie construida del edificio supere el 20% y no llegue al 60% de la obra de reposición completa de la pieza según baremos del Anexo I. En las viviendas o locales cuando su costo dividido por la superficie de la vivienda o local supere el 20% y no llegue al 60% de la obra de reposición completa de la pieza según baremos del Anexo I.

3. Todas ellas, a su vez, pueden considerarse de dos maneras:

a) Aquéllas que afecten a elementos señalados en el Plan para su adecuación.

Señalamiento que viene dado por las normas generales, los planos de ordenación y las fichas.

b) Aquéllas que no afecten a elementos señalados por el Plan.

Artículo 31. Régimen.

1. Se respetarán siempre las condiciones de protección, tanto lo definido en normas generales como lo definido en particular, sea grafiado o pormenorizado en las fichas.

2. Se llevará a cabo la instalación de luces de emergencia en las zonas comunes.

3. El resto de las condiciones se respetarán siempre en cuanto a los nuevos espacios que puedan obtenerse derivados de la reforma. Pero, con relación a los espacios existentes donde no se cumplen las condiciones, éstas se exigirán dependiendo de lo siguiente:

a) En obras que afecten a elementos señalados en el Plan:

— Obras del nivel 1: Se exigirán las condiciones determinadas de manera expresa en las fichas, calificadas como RP1 y RP2 de la pieza correspondiente.

— Obras del nivel 2: Se exigirán las condiciones determinadas de manera expresa en las fichas, calificadas como RP2 de la pieza correspondiente.

— Si el costo superara el 10% del coste de reposición completa del edificio, se tendrá en cuenta lo dicho en b).

b) En aquellas obras que no afecten a elementos señalados en el Plan:

— Obras del nivel 1: Aquellas obras que en su conjunto su coste supere el 10% del coste de reposición completa de todo el edificio y siempre y cuando las obras afecten a piezas comunes (todas menos viviendas o locales), se exigirán aquellas condiciones determinadas de manera expresa en las fichas con la calificación de prioritaria: «X».

— Obras del nivel 2: Se exigirá que lo reformado se encuentre acorde con estas normas.

5. ATALA. Eraberritze xeheko birgaitzeko eraikuntza ekintzak

32. artikulua. Seinalatutako elementuak eraginpean hartzen dituen eraberritze xehea. Definizioa eta erregimena.

1. Pieza osoa berrezartzeko kostuaren %20ra iristen ez diren eta Planak seinalatutako elementuen gainean egiten diren ekintzak dira. Seinalatze hori generikoki adierazita dago arau hauen bitartez, edo espezifikoki eraikuntza-unitateen arau partikularren bitartez edo antolamendu-planoen zehaztapen grafiko bidez.

2. Planean seinalatzen diren alderdiak hobetzeko asmo berariazkoarekin egiten direnean diru-laguntza eskuratzeko aukera izango da. Ekintzak piezan seinalatutako alderdi guztiak hobetzea lortzen duen heinean mailakatuko da diru-laguntza.

33. artikulua. Seinalatutako piezak edo elementuak eraginpean hartzen ez dituen eraberritze xehea. Definizioa eta erregimena.

1. Pieza berrezartzeko kostuaren %20ra iristen ez diren eta Planak seinalatutako elementuak eraginpean hartzen ez dituzten gainerako ekintzak dira.

2. Kasu horretan dagokion ekintzan zuzeneko eragina duten baldintzak besterik ez dira exijituko.

6. ATALA. Eraisteko ekintzak

34. artikulua. Definizioa eta erregimena.

1. Lehendik dagoen eraikin bat guztiz edo partzialki desagerraraztera zuzendutako eraikitze ekintza mota bat da. Guztiz eraisteko ekintza berreraikitze edo oin berriko ekintza bati loturik egon daiteke.

2. Partzialki eraisteko ekintza eraberritzeko ekintza bati eta, hala badagokio, handitzeko ekintza bati loturik egon daiteke, eraikitze beste esku-hartze batzuetan sartzen diren eranskin degradatzaileak eraisteko obren kalterik gabe.

3. Eraisteari dagozkion Planaren baldintzak eta alor horretako indarreko legerian ezarritakoak exijituko dira.

7. ATALA. Eraikitzeak ez diren erabilera aldatzeko ekintzak

35. artikulua. Definizioa eta erregimena.

1. Eraikitzeak ez diren erabilera aldatzeko ekintzak eraikuntzan sakonki edo partzialki esku hartu gabe eraikinari edo lursailari esleitutako erabilera nagusia aldatzen dutenak dira. Honako instalazio mota hauek ekar ditzakete berekin:

a) Jardueren instalazioak. Lokal edo eraikin batean, eraiki edo egokitu aurretik eta, nolana ere, bertan ezarri nahi den jarduera bati hasiera eman baino lehen, instalatu nahi diren osagarri mekanikoak edo instalazioak definitzen dituztenak dira.

b) Instalazioaren hobekuntza. Funtzionatzen ari diren jardueretara zuzendutako eraikin edo lokaletan instalazioen, makinaren edo antzeko elementuen ezarpen berria, hobekuntza edo aldaketa definitzen dutenak dira.

2. Arau orokorren eta partikularren hirigintza-arauetan erabilerei buruz ezarritakoa exijituko da, baita jardueraren instalazio bereziei dagokien jardueraren berezko legerian xedatutakoa ere.

SECCION 5. Acciones constructivas de rehabilitación de reforma menor

Artículo 32. De reforma menor afectante a elementos señalados. Definición y régimen.

1. Son las acciones que no alcanza el 20% del coste de reposición de la pieza completa y que se efectúan sobre elementos señalados en el Plan. El señalamiento está indicado de manera genérica a través de estas normas, o de manera específica a través de las normas particulares de unidades edificatorias o de las determinaciones gráficas de los planos de ordenación.

2. Cuando se realizan con la finalidad expresa de mejorar los aspectos que se señalan en el Plan, se podrá tener acceso a subvención que se graduará en la medida en que la acción consiga mejorar todos los aspectos señalados en la pieza.

Artículo 33. De reforma menor no afectante a piezas o elementos señalados. Definición y régimen.

1. Son el resto de acciones que no alcanzan el 20% del coste de reposición de la pieza, ni afectan a elementos señalados en el Plan.

2. En este caso sólo se exigirán las condiciones que directamente afecten a la acción correspondiente.

SECCION 6. Acciones de demolición

Artículo 34. Definición y régimen.

1. Demolición es un tipo de acción constructiva dirigida a la desaparición total o parcial de una construcción existente. La acción de demolición total podrá ir vinculada a una acción de reedificación o de nueva planta.

2. La acción de demolición parcial podrá ir vinculada a una acción de reforma y en su caso también de ampliación, sin perjuicio de las obras de demolición de añadidos degradantes incluidas en otras intervenciones constructivas.

3. Se exigirán las condiciones del Plan que afecten a la demolición así como la legislación vigente al respecto.

SECCION 7. Acciones no constructivas de cambio de uso

Artículo 35. Definición y régimen.

1. Las acciones no constructivas de cambio de uso son aquéllas que, sin intervenir profunda o parcialmente en la construcción, modifiquen el uso principal asignado a la edificación o a la parcela. Pueden llevar consigo los tipos de instalaciones siguientes:

a) Instalaciones de actividades. Son aquellos que definen los complementos mecánicos o las instalaciones que se pretenden instalar en un local o edificio con carácter previo a su construcción o adecuación y, en todo caso, con anterioridad al inicio de una actividad que se pretenden implantar.

b) Mejora de instalación. Son aquellos que definen la nueva implantación, mejora o modificación de instalaciones, máquinas o elementos análogos, en edificios o locales destinados a actividades que se encuentran en funcionamiento.

2. Se exigirá lo correspondiente sobre los usos de las condiciones urbanísticas de las normas generales y particulares, además de la legislación propia de la actividad correspondiente a las instalaciones peculiares de la actividad.

8. ATALA. Exijigarritasunaren eta finantzatzeko aukeren arteko erlazioa

36. artikulua. Baldintza orokorrak.

1. Ekintza mota guztiak diruz laguntzeko modukoak izan daitezke, gai horri buruzko udalaren ordenantzen arabera.

2. Udalaren ordenantzek eraikuntza-unitateen fitxetan adierazitako baldintza espezifikoen lehentasuna kontuan hartu beharko dute. Lehentasuna handiena izango da hala adierazita dagoenean, betiere jakinik udalak berak lehentasun hori aldatu ahal izango duela udal-teknikariek ekintza bat gauzatzekoan finkatzen dituzten irizpideei jarraiki.

III. TITULUA

HIRIGINTZA BALDINTZEN ARAUTZEA

I. KAPITULUA. ERABILEREN ARAUTZEA. SISTEMAK

37. artikulua. Arautze orokorra.

1. Erabileren baldintzak jarduera guztiak bete behar dituztenak dira, Planak aurreikusitako lekuetan garatu ahal izateko.

2. Kasu bakoitzean (fitxak eta planoak) «erabilera nagusi» bat ezartzen da (partikularra edo bereizgarria hurrengo artikulua arabera), beste erabilera batzuekin bateragarri egin daitekeena, Planean definitzen den bezalaxe. Dena den, erabilerek aplikatzekoa den arloko, autonomia-erkidegoko edo estatuko araudia bete beharko dute.

3. Erabileren arautzea goragoko mailako planetan (Plan Orokorra) zehaztutakora igortzen da, ondoren adierazten diren xehetasunekin.

38. artikulua. Erabileren sailkapena.

1. Erabilerek egoki arautzeko, honela sailkatzen dira:

2. Esleipenaren arabera, honakoak bereizten dira:

a) Erabilera globala. Hirigintza-antolamendu egituraztaileari dagokion erabilera da, esparru oso bat eraginpean hartzen duena esparru horretako erabilera partikularrek bereizi gabe. Zehaztapen egituraztailea da.

b) Erabilera partikularra edo bereizgarria: Halakotzat jotzen dira erabilera globaleko zona bateko edo erabilera xehatuko (azpi)zona bateko erabilera bereizgarriak edo nagusiak, esparru horien izaera, xede funtzionala eta berezko eraikuntza-tipologiaren konfigurazioa kontuan hartuta. Planean modu grafikoan edo fitxetan idatziz esleitutakoak dira.

c) Erabilera bateragarriak edo onargarriak: Halakotzat jotzen dira erabilera bereizgarriez bestelako erabilerek, erabilera globaleko zona batean edo erabilera xehatuko (azpi)zona batean baimen daitezkeenak, erabilera haiekiko eta, azken batean, esparru horien izaerarekiko eta xede funtzionalarekiko bateragarritasuna eta/edo osagarritasuna kontuan hartuta. Dagokien erregimena hurrengo artikuluan ezartzen da.

d) Erabilera toleratuak: Halakotzat jotzen dira eraikin jakin batean ezarritako erabilera edo jarduerak, beren kalifikazioak definitutakoaren arabera eraikin horretan onartutakoan artean ez daudenak, erabilera hori «A.10. Hirigune historikoko bizitegi-zona» esparruaren barruan onartuta badago.

SECCION 8. Relación entre la exigibilidad y las posibilidades de financiación

Artículo 36. Condiciones generales.

1. Todas los tipos de acciones podrán ser subvencionables, según ordenanzas del Ayuntamiento sobre esta materia.

2. Las ordenanzas del Ayuntamiento deberán tener en cuenta la prioridad de las condiciones específicas señaladas en las fichas de unidades edificatorias. Prioridad que será máxima en el caso de que estén señaladas como tales, sabiendo que tal prioridad podrá ser cambiada por el propio Ayuntamiento de acuerdo con los criterios de sus técnicos a la hora de la ejecución de una acción.

TITULO III

REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES URBANÍSTICAS

CAPITULO I. REGULACION DE LOS USOS. LOS SISTEMAS

Artículo 37. Regulación general.

1. Las condiciones de los usos son aquéllas a las que han de sujetarse las diferentes actividades para poder ser desarrolladas en los lugares previstos por el Plan.

2. En cada caso (fichas y planos) se establece un «uso principal (particular o característico según artículo siguiente)» que podrá compatibilizarse con otros usos tal y como se define en el Plan. En todo caso, los usos deberán satisfacer la normativa sectorial, autonómica o estatal, que les fuera de aplicación.

3. La regulación de usos se remite a lo determinado en los planes superiores (Plan General) con las precisiones que se expresan a continuación.

Artículo 38. Clasificación de usos.

1. Al objeto de una adecuada regulación de los usos, se clasifican de la siguiente manera:

2. En razón de su asignación, se distinguen:

a) Uso global. Es aquél que se refiere a la ordenación urbanística estructurante y afecta a todo un ámbito del suelo sin hacer distinción entre los usos particulares de ese ámbito. Es una determinación estructurante.

b) Uso particular o característico: Se consideran como tales los usos característicos o predominantes de una zona de uso global o (sub)zona de uso pormenorizado en atención a la naturaleza, el destino funcional, e incluso la configuración de la tipología edificatoria propia de dichos ámbitos. Son los asignados en el plan de manera gráfica o escrita en las fichas.

c) Usos compatibles o admisibles: Se consideran como tales los usos diversos de los característicos, autorizables en una zona de uso global o (sub)zona de uso pormenorizado en atención a su compatibilidad y/o complementariedad con aquellos, y, en definitiva, con la naturaleza y el destino funcional de esos ámbitos. Su régimen se establece en los artículos siguientes.

d) Usos tolerados: Se consideran como tales los usos o actividades implantados en un edificio determinado, que no se encuentren entre los definidos por su calificación como permitidos en tal edificio, si tal uso se encuentra permitido dentro del ámbito Residencial de Casco Antiguo, Zona A.10.

e) Erabilera debekatuak: Halakotzat jotzen dira erabilera globaleko zona batean edo erabilera xehatuko (azpi)zona batean baimendu ez diren eta baimendu ezin diren erabilerak, esparru horien izaerarekiko eta xede funtzionalarekiko bateraezintasuna kontuan hartuta.

3. Titulartasunaren arabera, honakoak bereizten dira:

a) Jabari publikoko erabilerak edo sistemak: Planak zehaztuko du interes publikoko edo gizarte-intereseko erabilere titulartasun publikoa. Bereziki aintzat hartzen dira.

b) Jabari pribatuko erabilerak: Aurreko atalean sartuta ez daudenak titulartasun pribatukoak direla ulertuko da.

39. artikulua. BPBko erabileren definizioa.

1. Esparru osoko erabilera globala hirigune historikoko bizitegia da (A.10. zona).

2. Erabilera partikular nagusiak edo bereizgarriak honako hauek dira:

a) Bizitegi-erabilera, etxadi-patiorik gabe.

b) Bizitegi-erabilera, etxadi-patioarekin.

c) Zuzkidura-erabilera, bai sistema orokorra bai tokiko sistema:

— Ekipamendu komunitarioa (edo ekipamendua).

— Espazio libre publikoa (espazio librea Plan Orokorrean).

— Bideak edo komunikabideak.

40. artikulua. Erabilera bateragarri edo onargarrien erregimena.

1. Bizitegi-erabilerako lursailetan (etxadi-patioarekin zein etxadi-patiorik gabe) erabilera bateragarriak edo onargarriak Plan Orokorrean zehaztutakoaren arabera eta hurrengo atalak ezartzen dituen baldintzetan arautzen dira.

2. Espazio libre pribatuko erabilerako lursailetan erabilera bateragarriak edo onargarriak honakoak izan daitezke:

— Lorategia edo baratzea.

— Eraikuntzaren funtzionamendu onerako beharrezkoak diren azpiegiturak eduki ditzaketek.

— Ezin izango dute inolako eraikuntzarik eduki.

3. Espazio libre pribatuko erabilerako lursailak egoera onean eta txukun mantendu beharko dira. Horretarako, gutxienez:

a) Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisku-tsuei buruzko ordenantzak urratzen dituzten erabilerak saihestu beharko dituzte.

b) Euri-urak husteko sistema eduki beharko dute.

c) Usain txarra sortzen duten substantziak (hezetasuna barne) egotea saihestu beharko dute.

d) Hondakinak eta zaborrak pilatzea saihestu beharko dute.

e) Fatxada, zoladura, arotzeria eta hormatxoetako kalteak konpondu beharko dituzte.

f) Zuhaitzik izanez gero, inausi egin beharko dituzte adarrek 4 metroko altuera gaindi ez dezaten eta fatxadetatik 2 metro baino gutxiagora hurbil ez daitezten.

4. Sistema orokorreko zein tokiko sistemako ekipamendu-erabilerako lursailetan (ekipamendu komunitarioa) erabilera bateragarriak edo onargarriak honakoaren arabera arautzen dira:

e) Usos prohibidos: Se consideran como tales los usos no autorizados ni autorizables en una zona de uso global o (sub)zona de uso pormenorizado, en atención a su incompatibilidad con la naturaleza y el destino funcional de dichos ámbitos.

3. En razón de su titularidad, se distinguen:

a) Usos de dominio público o sistemas: El Plan determinará la titularidad pública de aquellos usos de interés público o social. Tienen una consideración especial.

b) Usos de dominio privado: Los no incluidos en el apartado anterior se entenderán de titularidad privada.

Artículo 39. Definición de usos del PER.

1. El uso global de todo el ámbito es el Residencial de Casco Antiguo, Zona A.10.

2. Los usos particulares principales o característicos son los siguientes:

a) Uso residencial sin patio de manzana.

b) Uso residencial con patio de manzana.

c) Dotacional, tanto sistema general como sistema local:

— Equipamiento comunitario (o equipamiento).

— Espacio libre público (espacio libre en el Plan General).

— Viario o comunicaciones.

Artículo 40. Régimen de usos compatibles o admisibles.

1. Los usos compatibles o admisibles en parcelas de uso residencial, tanto con patio de manzana como sin patio de manzana, se regulan según lo determinado en el Plan General y en las condiciones que establece la siguiente sección.

2. Los usos compatibles o admisibles en parcelas de uso de espacio libre privado podrán ser los siguientes:

— Jardín o huerta.

— Podrán contener las infraestructuras necesarias para el buen funcionamiento de la edificación.

— No podrán tener edificaciones de ningún estilo.

3. Las parcelas de uso de espacio libre privado se deberán mantener en buen estado y limpieza y, a estos efectos, deberán como mínimo:

a) Evitar usos que contravengan las ordenanzas sobre actividades molestas, insalubres, nocivas o peligrosas.

b) Disponer de evacuación de aguas de lluvia.

c) Evitar que existan sustancias que provoquen mal olor, incluyendo humedades.

d) Evitar acumulación de desechos y basuras.

e) Reparar desperfectos en fachadas, pavimentos, carpinterías y muretes.

f) En caso de existir arbolado, la poda para que las ramas no superen los 4 metros de altura ni se acerquen a menos de 2 metros de las fachadas.

4. Los usos compatibles o admisibles en parcelas de uso equipamental (equipamiento comunitario) tanto sistema general como local se regulan según lo siguiente:

— Andre Maria eliza: Egungo erabilera finkatu egiten da (erlijio-kultua), eta kultura erabilera ere onartzen da.

— Aranburu jauregia: Etxebizitza-erabilera onartzen da, kopurua bira mugatuta.

— Idiaketz jauregia: Hirugarren sektoreko erabilera hauek finkatzen dira: soziokulturalak, elkartze-erabilerak eta jolas-erabilerak, eta erabilera nagusiari lotutako etxebizitza bat onartzen da.

— Udaletxea: Andre Maria plazan kokatutakoan garaje-erabilera onartzen da soto solairuan.

— Zerkausiko azoka: Egungo erabilera finkatzen da.

— Plaza Berriko azoka: Gainera, hirugarren sektoreko erabilera hauek onartzen dira: Osasun-erabilera, soziokulturala, jolas-erabilera, kirol-erabilera eta laguntza erabilera.

— Kultur Etxea: Ekipamendu komunitarioa besterik ez da onartzen.

— Errota zaharra: Ostalaritzako hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoa onartzen da.

— Apaiz Etxea: Kultura-erabilera onartzen da. Horrez gain, etxebizitza-erabilera onartzen da, behar izanez gero, mantentze-lanak egiten dituzten langileentzat. Sotoko solairuan garaje-erabilera onartzen da.

— Atodo jauregia eta Rekalde jauregia: Bizitegi-erabilera eta hirugarren sektoreko erabilerak (ostalaritza-erabilera, jolas-erabilera eta soziokulturala), baina kasu horietan behe-solairua edo eraikin osoa okupatu behar dute.

5. Sistema orokorreko zein tokiko sistemako espazio libre publikoko erabilerako lursailetan erabilera bateragarriak edo onargarriak Plan Orokorrean zehaztutakoaren arabera arautzen dira.

6. Bide- edo komunikabide-erabilerako lursailetan erabilera bateragarriak edo onargarriak honakoak izango dira:

— Oro har, Plan Orokorrean adierazitakoa.

— Sistema orokorreko bideak ibilgailuentzat izango dira.

— Tokiko sistemako bideak, kontraktorik zehaztu ezean, oinezkoentzat izango dira, nahiz eta ibilgailuekin bateragarri izan.

— Pertsonak eta ibilgailuak igarotzea eta ibilgailuak horretarako araututako eremuetan aparkatzea izango da bideen erabilera eskusiboa.

2. ATALA. Baldintza espezifikoak

41. artikulua. Bizitegi-erabilerako eraikuntzaren baldintzak.

1. Eraikinetako sotoak lehentasunez erabilera erantsi eta osagarrietara, garajeetara, trasteleketara edo eraikinaren eta bertako edo are beste eraikin batzuetako lokal edo etxebizitzentzako zerbitzu-instalazioetara zuzenduko dira.

a) Halaber, hirugarren sektoreko erabileretara eta ekipamendu komunitarioetara zuzendu ahal izango dira, baldin eta solairu horietan garatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla justifikatzen bada eta hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Behe-solairua batez ere hirugarren sektoreko erabileretara eta ekipamendu komunitarioetara zuzenduko da, baita eraikin horretan bertan edo beste batean kokatutako etxebizitzentzako Plan Orokorrean definitutako bizitegi-lursailen berezko gainerako erabileren erabilera osagarrietara ere.

— Iglesia de Santa María: Se consolida el uso actual, destinado al culto religioso, admitiéndose también el uso cultural.

— Palacio Aramburu: Se permiten el uso de vivienda limitándose el número a dos.

— Palacio de Idiaketz: Se consolidan los siguientes usos terciarios: Socioculturales, asociativos y recreativos, admitiéndose una vivienda ligada al uso principal.

— Casa Consistorial: Se permite en el situado en el situado en la Plaza Santa María el uso de garaje en planta sótano.

— Mercado del Tinglado: Se consolida su uso actual.

— Mercado de Plaza Berria: Se permiten además los usos terciarios siguientes: Uso sanitario, sociocultural, recreativo, deportivo y asistencial.

— Casa de Cultura: No se permiten más usos que el equipamental comunitario.

— Antiguo Molino: Se permite el uso de actividad económica terciario de hostelería.

— Apaiza-Etxea: Se permite el uso cultural. Se admite además el uso de vivienda para el personal de mantenimiento si fuera necesario. En planta sótano se permite el uso de garaje.

— Palacio de Atodo y Rekalde: Se permiten el uso residencial y los usos terciario de uso hostelero, recreativo y sociocultural, si bien en estos casos deberán ocupar o bien la planta baja, o bien la totalidad del edificio.

5. Los usos compatibles o admisibles en parcelas de uso de espacio libre público tanto sistema general como local se regulan según lo determinado en el Plan General.

6. Los usos compatibles o admisibles en parcelas de uso viario o de comunicaciones serán los siguientes:

— En líneas generales, lo señalado en el Plan General.

— El viario sistema general será rodado.

— El viario sistema local, si no se especifica lo contrario, será peatonal, aunque sea compatible con el vehículo.

— El uso exclusivo de los viales es el del tránsito de personas y vehículos, y el estacionamiento de los segundos en las áreas reguladas al efecto.

SECCION 2. Condiciones específicas

Artículo 41. Condiciones de la edificación de uso residencial.

1. Los sótanos de las edificaciones que cuenten con él se destinarán preferentemente a usos anejos y auxiliares, garajes, trasteros, almacenes o instalaciones de servicio del edificio y de los locales y viviendas del mismo o incluso de otras edificaciones.

a) Podrán asimismo destinarse a usos terciarios y de equipamiento comunitario, siempre que se justifique la cumplimiento de las condiciones necesarias para su desarrollo en estas plantas y cumplan con las condiciones establecidas en el artículo siguiente.

2. La planta baja se destinará principalmente a usos terciarios y de equipamiento comunitario, así como a usos auxiliares de las viviendas y de los restantes usos propios de las parcelas residenciales definidos en el Plan General, tanto estén localizados en esa misma edificación como en otra diversa a la anterior.

3. Sostengu duten lurzoruari karga handiak transmititzen dizkioten instalazioetako elementu teknikoak –biltegiak; igo-gailuen makineriak; galdara-gelak; eta abar* lurrean bertan, sotoetan edota, baldin badaude, erdisotoetan ezarriko dira lehentasunez.

4. Behe-solairuan eta lehen solairuan merkataritza-erabilerak (1. eta 2. kategoría), bulegoak, jolas-erabilerak, osasun-erabilerak, laguntza-erabilerak, erabilerak soziokulturalak, irakaskuntza-erabilerak eta ekipamendu komunitarioko erabilerak onartzen dira hurrengo artikuluan ezarritako baldintzetan.

5. Berdura plazako behegaineko solairuetan bizitegi-erabilerak ezartzea baimentzen da, nahiz eta horien altuera libre minimoa 2,50 metrotik beherakoa izan, betiere etxebizitzetarako sarbidea eraikinaren komunikazioetako gunetik egiten bada eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, Eraikitzeke Udal Ordenantzetan eta indarreko gainerako lege-xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

6. Goiko solairuak lehentasunez bizitegi-erabilerara eta erabilerak horren erabilerak osagarrietara zuzenduko dira, lurrean bertan zuzenean jarri behar diren instalazioetako elementu teknikoak izan ezik edo bizitegi-erabilerara zuzentzen diren lokalen erabiltzaileei eragozpenak eragin diezazkieketen elementuak izan ezik. Etxebizitzarekin bateragarriak diren erabilerak ezartzea ere baimenduko da hurrengo artikuluan ezarritako baldintzetan.

7. Teilatueko solairua lehentasunez eraikuntzaren instalazioetako elementu teknikoak ezartzera zuzenduko da, eta erabilerak osagarriak ere ezarri ahal izango dira. Halaber, beste eraikin batzuetan kokatutako erabilerak nagusien erabilerak osagarri edo erantsietara ere zuzendu ahal izango da. Etxebizitza-erabilerara ere zuzendu ahal izango dira arau honetan ezarritako baldintzetan.

42. artikulua. Bizitegi-erabilerako eraikinetako erabilerak bateragarrien baldintzak.

1. Sotoan, erdisotoan eta behe-solairuan ezarritako erabilerak etxebizitzetarako sarbidea izango dute.

2. Merkataritza-erabileraren (1. eta 2. kategoría), bulego-erabileraren, jolas-erabileraren, osasun-erabileraren, laguntza-erabileraren, kirol-erabileraren, erabilerak soziokulturalaren, irakaskuntza-erabileraren eta ekipamendu komunitarioko erabileraren baldintzak.

— 1. eta 2. kategoriako merkataritza-erabilerak eta jolas-erabilerak:

* 1. kategoriako merkataritza-erabilerak erdisotoan eta behe-solairuan ezartzea baimentzen da, baldin eta etxebizitzetarako sarbidea badute.

* Merkataritza-erabilerak jendaurreko salmentakoa bada behe-solairuan besterik ez da kokatuko. Solairuartea edo lehen solairua jarduera hori handitzeko egokitu ahal izango da, bien artean barne-komunikabidea ezarrita.

* Salbuespen gisa, lehen solairuan jendearentzako zerbitzuzuzentzako merkataritza-erabilerak (ile-apaindegiak, apaindegiak, tindategiak, jostundegiak eta antzekoak) onartuko dira, etxebizitzetarako sarbidearekin edo sarbide komunarekin, baldin eta azpian kokatutako solairuak etxebizitzetarako beste-lako erabileretara zuzentzen badira.

— Bulego-erabilerak, osasun-erabilerak, laguntza-erabilerak, kirol-erabilerak, erabilerak soziokulturalak, irakaskuntza-erabilerak eta ekipamendu komunitarioko erabilerak:

3. Determinados elementos técnicos de las instalaciones caracterizados por las fuertes cargas que transmiten al suelo en que se apoyan depósitos; maquinarias de ascensores; cuartos de calderas; etc., se implantarán preferentemente bien sobre el terreno, bien en sótanos y semisótanos si existen.

4. En las plantas bajas y primera, se admiten los usos de comercio (1.ª y 2.ª categoría), oficina, recreativos, sanitario, asistencial, sociocultural, docente, y de equipamiento comunitario en las condiciones establecidas en el artículo siguiente.

5. Se autoriza la implantación de usos residenciales en las plantas de entresuelo de la Plaza Berdura, aún cuando la altura libre mínima de las mismas sea inferior a 2,50 metros, siempre que el acceso a las viviendas se realice a través del núcleo vertical de comunicación del edificio y cumplan las condiciones establecidas tanto en el Plan General de Ordenación Urbana como en las Ordenanzas Municipales de Edificación y demás disposiciones legales vigentes.

8. Pertsonak bertan etengabe egotera zuzendutako lokalaren zatiak aireztapen naturala izango du, behar izanez gero aireztapen artifizialarekin osatua. Aireztapen naturala duten lokalek fatxadara edo patiora irekitako baoak izan beharko dituzte. Horien guztizko azalera zerbitzatzen duten azalaren %10ekoa izango da gutxienez. Aurrekoa betetzen ez bada, CTE, RITE edo araudi osagarriaren ezaugarrien arabera aireztapen artifiziala erabili ahal izango da.

9. Ur beltzak estolderia-sare orokorrera isurtzea, tutu irazgaitzen eta aireztatu bidez. Horrelako sarerik ez dagoenean, ur korronteetara isuri baino lehen edo lurrari eman baino lehen likidoa araztea ahalbidetuko duten hobi septiko egokiak erabiliko dira.

10. Lokaleko instalazio elektrikoak Behe Tentsioko Erregelamendua betetzea.

11. Lokalak berokuntza-instalazioa izatea.

119. artikulua. Igogailuen instalazioa.

1. Eraikuntza berriaren kasuan, nahitaezkoa izango da eraikin guztietan igogailua instalatzea, 5,50 metrotik beherako lursail-aurrealdea edo 60 metro koadrotik beherako lursail-azalera dutenetan izan ezik.

III. KAPITULUA. ELBARRITASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO IRISGARRITASUN BALDINTZAK

120. artikulua. Baldintza orokorrak.

1. Etxebizitzak elbarriek erabiltzeko egokituta daudela esaten da etxebizitza horiek eta horietarako sarbideek kolektibo horri dagokionez aplikatzeko den legerian adierazitakoa betetzen dutenean. Administrazio-organo eskudunak, aldeko txosten teknikoaren ostean, baimena eman ahal izango du babes daitekeen aurrekontuan barne hartzeko aipatutako legerian berariaz adierazi ez diren baina etxebizitzaren edo lokalaren erabilera edozein elbarritasun motak ezarritako berariazko mugetara egokitzea helburu duten etxebizitzaren barruko obrak.

2. Mota horretako baldintzak modu partikularrean adierazten dira lursailen edo eraikuntza unitateen fitxetan aipatzen diren baldintzetan.

VII. TITULUA

ESPARRU BEREZIEN ARAU PARTIKULARRAK

121. artikulua. RC-02 eremua.

1. Antolamendu-planoetan espezifikoki grafiatuta dago RC-02 eremua.

2. Eremu horretarako zehaztapen arauemaileak 2005eko ekainean onartu zen «RC.2 «Ezkerraldea» eremua Birgaitzeko Plan Berezia» zehaztutakoak izango dira.

3. Horrenbestez, 317/2002 Dekretuaren 14. artikuluko b), c) eta f) ataletan zehaztutakoa ere bai.

b) La puerta de acceso tendrá una anchura mínima de 0,80 metros o una anchura superior según lo establecido en las normativas de aplicación.

6. La anchura de las escaleras interiores será la definida en la normativa técnica vigente.

7. La parte de los locales destinada a la estancia continua de personas dispondrá de iluminación natural pudiéndose complementar con iluminación natural.

8. La parte de los locales destinada a la estancia continuada de personas dispondrá de ventilación natural pudiéndose complementar con iluminación artificial. Los locales que dispongan de ventilación natural deberá disponer de huecos a fachada o a patio cuya superficie total sea como mínimo el 10% de la superficie a la que sirvan. En caso de no cumplir lo anterior se podrá disponer de ventilación artificial según características del CTE, RITE o normativa suplementaria.

9. Que tengan resuelto el vertido de aguas negras, mediante tuberías impermeables y ventiladas, a la red general de alcantarillado. En caso de no existir dicha red, se utilizarán fosas sépticas adecuadas que permitan el depurado del líquido afluente antes de verterlo a las aguas corrientes o entregarlo al terreno.

10. La instalación eléctrica del local cumplirá el Reglamento de Baja Tensión.

11. Que el local disponga de instalación de calefacción.

Artículo 119. Instalación de ascensores.

1. Será obligatoria la instalación de ascensor en todas las edificaciones en caso de nueva edificación, salvo en aquellas cuyo frente de parcela sea menor a 5,50 metros o la superficie de parcela sea menor a 60 metros cuadrados.

CAPITULO III. DE LAS CONDICIONES DE ACCESIBILIDAD POR PERSONAS CON MINUSVALÍAS

Artículo 120. Condiciones generales.

1. Se considera que las viviendas y locales están adecuados para su utilización por minusválidos cuando éstas y sus accesos cumplan lo establecido en la normativa aplicable a este colectivo. El órgano administrativo competente, previo informe técnico favorable, podrá autorizar la inclusión en el presupuesto protegible de aquellas obras a realizar en el interior de la vivienda que, sin estar expresamente previstas en la citada normativa, tengan por objeto adecuar el uso de la vivienda o local a las limitaciones específicas impuestas por cualquier tipo de minusvalía.

2. Las condiciones de este tipo se expresan, de manera particular, en las condiciones que se citan en las fichas de parcela o unidades edificatorias.

TITULO VII

NORMAS PARTICULARES DE ÁMBITOS ESPECIALES

Artículo 121. Del Área RC-02.

1. En los planos de ordenación se grafía de modo específico el área RC-02.

2. Las determinaciones normativas para esa área serán las especificadas en el «Plan Especial de Rehabilitación del Área RC.2 «Margen Izquierda»» aprobado en junio de 2005.

3. Por tanto, lo determinado en el artículo 14 del decreto 317/2002, en sus apartados b), c) y f) también.

VIII. TITULUA

ERANSKINAK

I. KAPITULUA. BERREZARTZEKO KOSTUEN
BALORAZIO EKONOMIKOA

Arau hauetan azaltzen diren eraberritze osoko eta eraberritze partzialeko eraikitze ekintzetan eraikin osoa edo jarduten den guneari dagozkion piezak osorik berrezartzearen balioa aipatzen da. Eta zehaztutako segurtasun-baldintzak, bizigarritasunari dagozkionak eta gainerakoak bete beharra ezartzen da, obraren kostuari osorik berrezartzearen balioaren aldean dagoen ehunekoaren arabera.

Hori dela-eta, modu arauemailean azaldu behar da osorik berrezartzearen kostu hori, hala eraikin osorako, nola jardunak eraginpean hartzen dituen piezetariko bakoitzerako.

Berrezartzearen kostuen balorazio ekonomikoak kostua adierazten du, mozkin industrial barne, hau da, guztizko kostua. Berrezartzearen kostu horiek urtero eguneratu ahal izango ditu udalak: Gehitu edo gutxitu egin daitezke kontu-sail bakoitza eraikitzearen benetako kostuen arabera. Kostua eraikin osoaren metro koadro eraikiko eurotan adierazita dago, etxebizitzaren edo lokalaren piezen kasuan izan ezik, horrelakoetan etxebizitza edo lokal horren azalera besterik ez baita kontuan hartuko.

Eraikin osoaren kostuaren eta piezetariko bakoitzaren baturaren arteko aldearen arrazoia honako honetan datza: Bete daude obretan eragina duten antolamendu-kostu jakin batzuk, haien bolumena dena dela ere, eta are gehiago birgaitzeko obrak badira (pieza bakoitzaren kasuan 1,4ko koefizientea kalkulatu da oin berriko eraikin baten edo eraberritze osoaren aldean).

122. artikulua. Osorik Berrezartzearen kostuaren balorazio ekonomikoa.

<i>Eraikin osoa edo pieza</i>	<i>Berrezartzearen kostua (euro/m²)</i>
Eraikin osoa	900 euro/m ²
Egitura zimendurik gabe	160 euro/m ²
Estalkia (egiturarekin)	150 euro/m ²
Fatxada*	140 euro/m ²
Eremu komunak (eskailerarekin)	100 euro/m ²
Patioak**	50 euro/m ²
Instalazioak (harguneak besterik ez)	30 euro/m ²
Etxebizitza/lokala	650 euro/m ²

* Fatxaden kasuan balio hori kontuan hartutako 3 fatxada motei aplikatu dakieke.

** Patioetan eremu komunak eta gela pribatuak aireztatzeko eta argiztatzeko balio duten eraikinaren elementuak sartzen dira. Azalera handitu gabe berrezartzearen kostua.

123. artikulua. Aplikazioaren adibidea.

Aplikazio orokorra:

— Proposatutako eraberritzearen zenbateko ekonomikoa kontuan hartzen da eta eraikinaren guztizko metro koadro eraikiekin zatitzen da. Lortutako zatidura pieza hori berrezartzearen kostuarekin zatitzen da. Emaitzak adieraziko digu zein ehuneko dagoen pieza berrezartzearen kostuaren aldean. Ehuneko horren bidez ekintza motaren maila (RP1, RP2) adieraziko digu, eta, horrenbestez, bete beharreko baldintzak.

Etxebizitza edo lokalak bezalako pieza pribatiboak eraberritzean aplikatzeko modua:

TITULO VIII

ANEXOS

CAPITULO I. VALORACIÓN ECONÓMICA DE COSTOS
DE REPOSICIÓN

En las acciones constructivas de reforma completa y de reforma parcial que se exponen en las presentes Normas se hace referencia al valor de reposición completa de todo el edificio o de las piezas correspondientes donde se actúe. Y se obliga a cumplir las condiciones determinadas de seguridad, habitabilidad y demás, según el tanto por ciento que el costo de la obra alcance respecto del valor de reposición completa.

Por ello es necesario exponer, de manera normativa, ese costo de reposición completa, tanto para el edificio en su conjunto, como para cada una de las piezas donde se actúe.

La valoración económica de costos de reposición se refiere al costo incluyendo el beneficio industrial, esto es, el coste total. Estos costes de reposición podrán ser actualizados cada año por el Ayuntamiento, pudiendo incrementarse o disminuir en función de los costes reales de construcción de cada partida. El costo está expresado en euros por metro cuadrado construido del edificio en su totalidad, excepto en las piezas de vivienda o local, en que se considerará sólo la superficie de tal vivienda o local.

La diferencia entre el costo del edificio completo y la suma de cada una de las piezas es por la razón de que siempre hay unos costos mínimos de organización que repercuten en las obras, sean del volumen que sean y máxime si son obras de rehabilitación (en caso de cada pieza se ha supuesto un coeficiente de 1,4 respecto a un edificio de nueva planta o de reforma completa).

Artículo 122. Valoración económica del costo de reposición completa.

<i>Edificio completo o pieza</i>	<i>Costo de reposición euros/m²</i>
Edificio completo	900 euros/m ²
Estructura sin cimentación	160 euros/m ²
Cubierta (con su estructura)	150 euros/m ²
Fachada*	140 euros/m ²
Zonas Comunes (con escalera)	100 euros/m ²
Patios**	50 euros/m ²
Instalaciones (solo acometidas)	30 euros/m ²
Vivienda/local	650 euros/m ²

* En el caso de las fachadas este valor se puede aplicar a los 3 tipos de fachada considerada.

** Los patios hacen referencia a aquellos elementos de la edificación que sirven para la ventilación e iluminación de zonas comunes y estancias privadas. Costo de reposición en el caso de no ampliar su superficie.

Artículo 123. Ejemplo de aplicación.

Aplicación general:

— Se considera la cuantía económica de la reforma propuesta y se divide por los metros cuadrados construidos totales de la edificación. El cociente obtenido se divide por el costo de reposición por metro cuadrado para esa pieza. El resultado nos indicará en que porcentaje se encuentra respecto al coste de reposición de la pieza. Con este porcentaje indicaremos el nivel del tipo de acción (RP1, RP2) y, por tanto, las condiciones a cumplir.

Aplicación en caso de reforma de piezas privativas como la vivienda o locales:

— Proposatutako eraberritzearen zenbateko ekonomikoa kontuan hartzen da eta piezaren (etxebizitza edo lokala) metro koadro eraikiekin (ez erabilgarriak) zatitzen da. Lortutako zatidura etxebizitza/lokala berrezartzeko metro koadroko kostuarekin zatitzen da. Emaizak adieraziko digu zein ehuneko dagokion pieza berrezartzeko kostuaren aldean. Ehuneko horren bidez ekintza motaren maila (RP1, RP2) adieraziko dugu, eta, horrenbestez, bete beharreko baldintzak.

II. KAPITULUA. BALDINTZA PARTIKULARREN DESKRIBAPENA

Ondoren deskribatzen diren baldintza partikularrak eraikuntza-unitateen fitxetan agertzen diren itemen azalpena dira. Amaieran, hala badagokio, exijitzen den eraberritze-mailaren esleipen teorikoa adierazten da.

1. Egitura.

a) Egoera txarrean dauden forjatuaren osagaiak: Egoera akastunean dauden eta egiturak ongi funtzionatzeko konpondu behar diren forjatuaren osagaiak ordezttera bideratutako baldintza. (RP1).

b) Agente suntsitzaile biotikoak ezabatzea: Egituraren erresistentzia-ahalmena gutxitzea eragiten duten eta, horrenbestez, eraikinaren egonkortasuna arriskuan jartzen duten agente biotikoek erasandako zurezko egitura-elementuak tratatzea bideratutako baldintza. (RP2).

c) Forjatu inklinatuak ezabatzea: Etxebizitzetan forjatu inklinatuak ezabatzea zuzendutako baldintza. Ekintzak forjatu horiek ordeztzea edo konpontzea proposatzen du. (RP1).

d) Fatxadaren okerdura konpontzea: Arrisku estrukturala egon daitekeela-eta, fatxada konpontzean datzan baldintza. Konponketa hori fatxada segurtatzean datza.

e) Egiturazko sostengu-elementuak puntualki ordeztzea: Egiturakoak diren elementuak ordeztean edo konpontzean datzan baldintza, haien baldintzek eraikinaren egonkortasuna arriskuan jartzen dute-eta.

2. Estalkia.

a) Teilatueko altuera libre handitzea: Baldintza honek zehazten du teilatuean jendea bizi denean eta eraikinaren solairu kopurua arauetan ezarritakoaren arabera denean, teilatueko altuera libre arauan ezarritako baldintzen barruan handitu daitekeela. Babes-mailarik ezarrita ez duten eraikinetan aplikatzekoa da.

b) Instalazioak ezabatzea: Estalkiari dagozkionak ez diren eta apaingura-baldintzak aldatzen dituzten instalazioen elementuak ezabatzea bideratutako baldintza. (RP1).

c) BS + 4 hartzen duen estalkiaren barruan edo kanpoan mantsarda jarraituak ezabatzea:

Estalkiaren planotik irteten diren eta fatxadaren luzera osoan antolatuta dauden mantsardak ezabatzean datzan baldintza, estalkiari jatorrizko itxura itzultzera zuzendua. Baldintza hau exijitzeko mantsarda ezabatzeak zerbitzatzen duen etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak galtzea ekartzen duen kontuan hartuko da (ikus 55. artikulua).

d) BS + 4 hartzen duen estalkiaren barruan edo kanpoan mantsardak ezabatzea: Estalkiaren planotik puntualki irteten diren mantsardak ezabatzean datzan baldintza, estalkiari jatorrizko itxura itzultzera zuzendua. Baldintza hau exijitzeko mantsarda ezabatzeak zerbitzatzen duen etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak galtzea ekartzen duen kontuan hartuko da (ikus 55. artikulua).

— Se considera la cuantía económica de la reforma propuesta y se divide por los metros cuadrados construidos (no útiles) de la pieza (vivienda o local). El cociente obtenido se divide por el costo de reposición por metro cuadrado de la vivienda/local. El resultado nos indicará en que porcentaje se encuentra respecto al coste de reposición de la pieza. Con este porcentaje indicaremos el nivel del tipo de acción (RP1, RP2) y, por tanto, las condiciones a cumplir.

CAPITULO II. DESCRIPCIÓN DE LAS CONDICIONES PARTICULARES

Las condiciones particulares que se describen a continuación son una aclaración a los ítems que aparecen en las fichas de unidades edificatorias. Contienen, en su caso y al final, la adjudicación teórica al nivel de reforma en que se exige.

1. Estructura.

a) Componentes de forjado en mal estado: Condición encaminada a la sustitución de aquellas partes que conforman el forjado cuyo estado sea defectuoso y sea necesaria su reparación para el buen funcionamiento de la estructura. (RP1).

b) Eliminación de agentes destructores bióticos: Condición encaminada al tratamiento de elementos estructurales de madera afectadas por agentes bióticos que producen disminución de la capacidad resistente de la estructura, poniendo en riesgo la estabilidad del edificio. (RP2).

c) Eliminación de forjados inclinados: Condición dirigida a la eliminación de forjados inclinados en viviendas, la acción propone la sustitución o reparación de estos. (RP1).

d) Reparación de desplome de fachada: Condición consistente en la reparación de la fachada ya que puede haber riesgo estructural, su reparación consistirá en una aseguración de esta.

e) Sustitución puntual de elementos estructurales portantes: Condición consistente en la sustitución o reparación de elementos que forman parte de la estructura ya que sus condiciones ponen en riesgo la estabilidad del edificio.

2. Cubierta.

a) Aumento de altura libre bajocubierta: Condición que determina que en aquellos casos que el bajo cubierta se encuentre habitado, y el número de plantas de la edificación y no disienta de lo establecido en las Normas, se puede proceder al aumento de la altura libre de esta dentro de las condiciones establecidas en las Normas, aplicable en edificios que no son objeto de ningún grado de protección.

b) Eliminación de instalaciones: Condición orientada a la eliminación de aquellos elementos de instalaciones ajenos a las cubiertas que producen una alteración de las condiciones de ornato. (RP1).

c) Eliminación de mantsardas corridas dentro o fuera de la cubierta capaz de b+4:

Condición que consiste en la eliminación de las mantsardas que sobresalen del plano de la cubierta y que se disponen a lo largo de toda la longitud de la fachada, devolviendo a la cubierta su aspecto original. La exigibilidad de esta condición dependerá de dependiendo de si su supresión implica la pérdida de las condiciones de habitabilidad de la vivienda a la que da servicio (ver artículo 55).

d) Eliminación de mantsardas dentro o fuera de la cubierta capaz de b+4: Condición que consiste en la eliminación de mantsardas, que sobresalen puntualmente del plano de cubierta, devolviendo a la cubierta su aspecto original. La exigibilidad de esta condición dependerá de dependiendo de si su supresión implica la pérdida de las condiciones de habitabilidad de la vivienda a la que da servicio (ver artículo 55).

e) 4. solairuaren gaineko solairuak ezabatzea: Baldintza honek fatxadaren beste solairu bat baidiren islatzen diren BS + 4 solairuaren gaineko solairuak ezabatzen ditu, eraikina araudiak proposatzen duen altuerara egokitzeko (ikus 55. artikulua).

f) Jasodurak ezabatzea: Baldintza honek fatxadaren islatzen diren baina solairutzat jotzen diren BS + 4 solairuaren gaineko jasodurak ezabatzen ditu, ez baitira estalkiaren azaleraren barruan inskribatzen (ikus 55. artikulua).

g) Ereku komunetatik estalkirako sarbidea aldatzea: Baldintza honek estalkirako sarbidea aldatzen du, sarbiderik ez dagoenean edo espazio pribatuetatik egin behar denean edo iristeko oso zailak direnean. Sarbide egokia prestatu beharko da. (RP1).

h) Estalki-profila aldatzea: Baldintza honek estalkia aldatzen du gailur-lerroa fatxada nagusiaren lerroarekiko paraleloa ez bada, edo estalki-planoaren jarraitutasuna hausten duten terrazek fatxada nagusiaren lerroa eteten badute. (RP1 edo RC).

i) Estaldura-elementuak ordeztzea: Baldintza honek egoera txarrean dauden estaliko estaldura-elementuak (teilak) ordeztzen ditu. (RP2).

j) Estalkiaren egitura-elementuak ordeztzea: Baldintza honek mantentze-egoera txarrean dauden eta, horren ondorioz, estalkia erortzeko arriskua sortzen duten estalkiaren egiturako elementuak aldatzen ditu. (RP1).

k) Teilatu-hegala ordeztzea: Baldintza honek teilatu-hegala ordeztzen du materiala arauak zehaztutako baldintzetan egoki ez badago. Teilatu-hegalik ez badago eraiki beharra ekar dezake. (RP1).

3. Fatxadak.

a) Fatxada txukuntzea: Baldintza honek kontserbazio-egoera txarrean dagoen fatxada hobetu, garbitu eta konpontzen du, fatxadako elementuak ordeztu beharrik gabe, arauetan zehaztutakoarekin bat datozen-eta. (RP2).

b) Balkoi jarraituak zatitzea: Baldintza honek bi fatxada-bao baino gehiago elkartzen dituzten balkoiak bereizten ditu. Fatxadaren bereiztea da asmoa, araudian ezarritakoa betetzeko. (RP1).

c) Bistako adreiluko akabera ezabatzea: Baldintza honek fatxadaren akabera aldatzen du bistako adreilukoa duten eraikinetan, arauetan zehaztutakoaren arabera zarpiatuta edo adreilua kendu eta bere ordeztu arauekin bat datorren materialen bat jarrita. (RP1).

d) Kableak ezabatzea: Baldintza honek fatxadaren dauden kable elektrikoak zein telefonikoak ezkutatu egiten ditu, apaindura-arauetan ezarritakoarekin bat datozen kanaleten bidez edo kableak lurpean ezarrita. (RP2).

e) Gorputz itxiak edo begiratokiak ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu hiriguneko gainerako begiratokiekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten gorputz trinkoak edo begiratokiak. Horiek ezabatzeak arauetan ezarritakoarekin bat datozen balkoiak edo balkoirik gabeko fatxada-baoak sortuko ditu. (RP1 edo RC).

f) Esekilekuak ezabatzea: Baldintza honek kaletik ikus daitezkeen fatxadetako esekileku finkoak ezabatzen ditu. Fatxadatik ezabatzea eta eraikineko beste zati batzuetara lekualdatzea planteatzen da, esate baterako eraikinaren barne-patioetara, baldin eta dagokion teknikariaren iritziz barne-patioak arropa esekitzeko dimentsio egokiak baditu. (RP2).

e) Eliminación de plantas por encima de la planta 4.ª: Condición que elimina las plantas por encima de la planta baja +4, que tienen su reflejo en fachada, como una planta más y adecuarse la altura que la normativa propone (ver artículo 55).

f) Eliminación de sobrelevantes: Condición que elimina los levantes por encima de pb+4, pero que no tienen su reflejo en fachada, pero que se consideran una planta más, ya que no se inscriben en las dentro de la superficie capaz de la cubierta (ver artículo 55).

g) Modificación de acceso a cubierta desde zonas comunes: Condición que modifica el acceso a la cubierta en caso de que el acceso no exista o se deba realizar por espacios privados o sea de acceso muy difícil. Se deberá habilitar un acceso adecuado. (RP1).

h) Modificación del perfil de cubierta: Condición que consiste en modificar la cubierta en caso de que la línea de cumbrera no sea paralela a la línea de la fachada principal, o esta se encuentre interrumpida por terrazas que cortan la continuidad del plano de cubierta. (RP1 ó RC).

i) Sustitución de elementos de cubrición: Condición que consiste en la sustitución de los elementos de cubrición de la cubierta, tejas, debido a su mal estado. (RP2).

j) Sustitución de elementos estructurales de cubierta: Condición que consiste en cambiar aquellos elementos que forman parte de la estructura de la cubierta, cuyo estado de mantenimiento es malo y producen un riesgo de colapso de la cubierta. (RP1).

k) Sustitución del alero: Condición que conlleva la sustitución del alero en caso de que el material no se encuentre adecuado en las condiciones determinadas por las normas. También puede conllevar que en caso de no existir el alero se construya. (RP1).

3. Fachadas.

a) Adecentamiento de fachada: Condición que consiste en la mejora, limpieza y reparación de la fachada debido al mal estado de conservación de esta, sin la necesidad de sustituir los materiales de esta por otros, y que estos están en consonancia con lo determinado en las normas. (RP2).

b) División de balcones corridos: Condición consistente en la separación de aquellos balcones que agrupan más de huecos de fachada, se pretende su individualización en fachada, cumpliendo lo establecido en la normativa. (RP1).

c) Eliminación acabado ladrillo caravista: Condición que en aquellas edificaciones cuya fachada es de ladrillo caravista se modifique el acabado de esta, bien mediante un enfoscado acorde con lo determinado en las normas, o con la sustitución del ladrillo por un material acorde con las normas. (RP1).

d) Eliminación de cableado: Condición que conlleva la ocultación del cableado en la fachada, tanto eléctrico como telefónico, bien sea mediante canaletas acordes con lo establecido en las normas de ornato o mediante el soterramiento de este. (RP2).

e) Eliminación de cuerpos cerrados o miradores: Condición que suprime aquellos cuerpos cerrados o miradores cuyas características no se adecuen al resto de miradores del Casco. Su supresión dará lugar a balcones acordes con lo establecido en las normas o huecos de fachada sin balcón. (RP1 ó RC).

f) Eliminación de tendedores: Condición que elimina aquellos tendedores fijos en las fachadas, visibles desde la calle. Planteando su eliminación de la fachada y su traslado a otras partes del edificio como por ejemplo patios interiores de la edificación, siempre que el técnico correspondiente considere que el patio interior cuenta con las dimensiones adecuadas para el tendido de la ropa. (RP2).

g) Zorrotenak aldatzea: Baldintza honek arauak proposatzen dituzten baldintzak betetzen ez dituzten zorrotenean egoera aldatzen du. Gehienetan materialaren egokitasuna edo fatxadako antolaera kontuan hartzen da. (RP2).

h) Akaberen eraberritze orokorra: Baldintza honek ordeztu egiten ditu fatxadako akaberak, arauak fatxaden apaindura-baldintzetarako ezarritakoarekin bat ez datozen material desegokiak eginda daudelako. Baldintza honek fatxadan esku-hartze garrantzitsua egitea dakar, eta, horrenbestez, eraberritze osoan exijituko da normalean. (RC edo NE).

i) Leiho jarraitu horizontalak ezabatzea: Baldintza honek Hirigune Historikoaren irudia itxuraldatzen duten konposizio horizontalako leihoak ezabatzen ditu. Bao berriak Hirigunean nagusi den konposizio bertikalera egokituko lirake. (RP1).

j) Mehelinetarako leihoak ezabatzea: Baldintza honek mehelinetara ematen duten leihoak ezabatzen ditu. (RP1).

4. Zati komun bertikala.

a) Ezkaratzaren barnealdeko espazioen dimentsioak handitzea: Baldintza honek handitu egiten du ezkaratza, horren dimentsioak ez baitu ahalbidetzen orgak, gurgil-aulkiak eta abar igarotzea. Baldintza hau betetzeko behe-solairuko lokalak txikiagotuko dira edo eraberritze-lanak egingo dira. (RC edo NE).

b) Ezkaratzeko atea handitzea: Baldintza honek eraikinera sartzeko atea handituko du, txikiagia baita orgak, gurgil-aulkiak eta abar bertatik igarotzeko. (RP2).

c) Igogailu-zuzkidura: Baldintza honek igogailuak instalatuko ditu halakorik ez duten eraikinetan. (RC edo NE, adierazi teknikariaren iritziz egin daitekeen).

d) Espazio komunak argiztapen artifizialez hornitzea: Baldintza honek argi artifizialez hornituko ditu eraikineko eremu komunak, dela halakorik ez dagoelako, dela dagoena nahikoa ez dela irizten zaiolako. (RP2).

e) Espazio komunak argiztapen naturalez hornitzea: Baldintza honek argiztapen naturalez hornituko ditu eraikineko eremu komunak. Horretarako, patioak irekiko dira, patioetarako baoak handituko dira edo argi naturala igarotzea ahalbidetuko duten ezkaratzeko atak erabiliko dira. (RP1).

f) Espazio komunak aireztapenez hornitzea: Baldintza honek aireztapen naturalez hornituko ditu eraikineko eremu komunak. Horretarako, eskaileretako argi-zuloaren aireztapena erabiliko da, patioetarako baoak handituko dira edo airea igarotzea ahalbidetuko duten elementuz hornitutako ezkaratzeko atak erabiliko dira. (RP1 edo RP2).

g) Eskailera-mailak eta eskaileraren zankabeak konponetzea: Baldintza honek ordeztu edo konpondu egiten ditu egoera txarrean dauden eta pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duten eskailera-mailak eta eskaileraren zankabeak. (RP2).

h) Ezkaratzaren aurreko eskailera-mailak ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu ezkaratzaren aurreko eskailera-mailak, aski garaiak direnean, eraikina elbarrientzat irigarri egiteko plataforma jasotzaileak edo igogailuak ezartzen direnean. (RP1).

i) Nekez igo daitezkeen eskailera-atalak ordeztea: Baldintza honek ordeztu egiten ditu kontramailaren dimentsioaren ondorioz nekez igo daitezkeen eskailera-atalak. (RP1).

g) Modificación de las bajantes: Condición que modifica la situación de aquellas bajantes que no se ajusten a las condiciones que las normas proponen para estas, generalmente se refiere a la adecuación del material o a su disposición en la fachada. (RP2).

h) Reforma general de acabados: Condición que consiste en la sustitución de los acabados de fachada debido a que están realizados con materiales inadecuados y no acordes con lo establecido para las condiciones de ornato de las fachadas por las normas. Esta condición implica una intervención importante en la fachada por lo que la exigibilidad de esta condición se reserva a reforma completa generalmente. (RC o NE).

i) Supresión de ventanas corridas horizontales: Condición que consiste en la supresión de ventanas de composición horizontal que distorsionan la imagen del Casco Histórico. Los nuevos huecos se adaptarían a la composición vertical predominante en el Casco. (RP1).

j) Supresión de ventanas a medianeras: Condición que consiste en la supresión de aquellas ventanas que dan a medianeras. (RP1).

4. Parte común vertical.

a) Ampliación de las dimensiones de los espacios interiores de portal: Condición que consiste en la ampliación del portal, debido a que su dimensión no permite el paso de carros, sillas de ruedas, etc esta condición se cumple mediante la disminución de los locales de planta baja o una reforma. (RC o NE).

b) Ampliación puerta de portal: Condición que consiste en la ampliación de la puerta de acceso a la edificación ya que esta se considera insuficiente para el paso de carros, sillas de ruedas, etc. (RP2).

c) Dotación de ascensor: Condición que consiste en la inclusión de aparatos elevadores en aquellas edificaciones que no lo tengan. (RC ó NE, indicar a criterio del técnico si es posible).

d) Dotación de iluminación artificial en espacios comunes: Condición que consiste en la dotación de luz artificial en zonas comunes del edificio, ya por ausencia o porque se considera insuficiente. (RP2).

e) Dotación de iluminación natural en espacios comunes: Condición que consiste en dotar a los espacios comunes de iluminación natural, mediante la apertura de patios, ampliación de huecos a patios o mediante el empleo de puertas del portal que permitan el paso de luz natural. (RP1).

f) Dotación de ventilación en espacios comunes: Condición que consiste en dotar a los comunes de ventilación natural, mediante la ventilación del lucernario de las escaleras, ampliación de huecos a patio o mediante el empleo de puertas de portal con elementos que permitan la circulación del aire. (RP1 o RP2).

g) Reparación de peldaños y vigas zancas de escalera: Condición que consiste en sustituir o reparar aquellos peldaños en mal estado y aquellas vigas de escalera en mal estado que pongan en peligro la seguridad de las personas. (RP2).

h) Supresión de escalones previos de portal: Condición que consiste en eliminar los escalones previos al portal, en caso de que el escalón sea lo suficientemente elevado, para dotar al edificio de accesibilidad para minusválidos en caso de la implantación de plataformas elevadoras o ascensor. (RP1).

i) Sustitución de tramos de escalera de difícil ascensión: Condición que consiste en la sustitución de tramos de escalera cuya contrahuella es de una dimensión tal que dificulta su ascensión. (RP1).

j) Etxebizitzen aurreko espazioen dimentsioak handitzea: Baldintza honek handitu egiten ditu etxebizitzen aurreko espazioak, horien dimentsioak direla-eta bertan ezin baita pertsona bat egon pasabidea eten gabe, eta orgak edo gurgil-aukiak ezin baitira etxebizitzetara sartu. (RP1).

5. Patioak.

a) Aireztatzeko eta argiztatzeko patioak handitzea: Baldintza honek handitu egiten ditu tamaina urriaren ondorioz aireztatzeko eta argiztatzeko funtzioa behar bezala betetzen ez duten patioak. Ekintza horrek etxebizitzara zuzendutako espazioa murriztea dakar, edo, galera gutxien eragiten duen kasuan, komunikazio bertikaleko eremu komunak murriztea. (RC).

b) Aireztatzeko eta argiztatzeko patioen okupazioa: Baldintza honek ezabatu egiten ditu barne-patioak okupatzen dituzten elementuak, etxebizitza handitzearen edo komunak eraikitzearen eginak. Patioaren okupazioa gehienetan behesolairuan izaten da, eta zenbait kasutan gainerako solairuetan. (RP1).

c) Argi-patioak txukuntzea: Baldintza honek patioen higiene-baldintzak hobetzen ditu. Egoera txarrean daudelako, zikinkeria dutelako, obra-hondakinak pilatzen direlako edo hormak egoera txarrean dituztelako aplikatzen da. (RP2).

6. Instalazioak.

a) Gas-hargunearen instalazioa ezartzea: Baldintza honek eraikinerako hiri-gasaren hargunea instalatzen du, eraikinak halakorik ez badu, eraikuntza-unitateko bizilagun bakoitzak konektatzeko aukera izan dezan. (RP1).

b) Gas-instalazioak barnealdera lekualdatzea: Baldintza honek gas-instalazioaren erregistro-kaxak eta konexio-elementuak eraikinaren barnealdera lekualdatzen ditu, gas naturaleko teknikariak ibil daitezkeen eremuetara. (RP1).

7. Etxebizitza/lokalak.

a) Akaberen eraberritze orokorra: Baldintza honek merkataritzako lokalen akaberak eraberritzen ditu, horiek araudian zehaztutakoarekin bat ez badatoz. Merkataritzako lokalari dagokion fatxadarako besterik ez da exijituko baldintza. (RP1).

b) Sestrapeko merkataritzako lokalen kota egokitzea: Baldintza honek merkataritzako lokalen sarbide-kota kalearen kota berean ezartzen du. (RP1).

c) Sabai-altuera librea handitzea: Baldintza honek altuera librea handitzen du bizigarritasun-baldintza minimoak betetzen ez dituen zorutik sabairako altuera librea duten etxebizitzetan. Baldintza honek forjatua altxatu beharra dakar kasu batzuetan. Horregatik, eraberritze osoko kasuetan exijituko da. (RC).

d) Etxebizitzak higiene-ekipamenduaz hornitzea: Araudiak bizigarritasun-kontuetan exijitzen dituen minimoak betetzeko etxebizitza batek behar dituen higiene-ontzi guztiak ez dituzten etxebizitzak elementu horietaz hornitzen ditu baldintza honek. (RP2).

e) Logelak edo pieza bizigarriak argiztapenez hornitzea: Baldintza honek argiztapenez hornitzen ditu halakorik ez duten pieza bizigarriak. Horretarako, baoak irekiko dira patioetara edo trenkadak ezabatuko dira argi naturalari igarotzen uzteko. Baldintzak etxebizitzaren aldaketa sakona eskatzen badu, exijigarritasun-maila RP1 izango da. Argiztapenez hornitu beharra trenkadetan baoak irekiz edo lehendik dauden baoak handitzu konpontzen bada, exijigarritasun-maila RP2 izango da.

j) Ampliación de las dimensiones de los espacios previos a las viviendas: Condición que consiste en la ampliación de los espacios previos a las viviendas ya que tiene una dimensión tal que no permiten la estancia de una persona sin interrumpir el paso, ni el acceso a las viviendas de carros o sillas de ruedas. (RP1).

5. Patios.

a) Ampliación de patios de ventilación e iluminación: Condición que consiste en la ampliación de estos patios debido a su tamaño insuficiente no cumplen con la función de ventilación e iluminación de forma satisfactoria. Esta acción conlleva la disminución de espacio dedicado a vivienda o en el caso menos gravoso a zonas comunes de comunicación vertical. (RC).

b) Ocupación de patios de ventilación e iluminación: Condición que consiste en la eliminación de aquellos elementos que ocupan los patios interiores, para la ampliación de la vivienda o la construcción de aseos. La ocupación del patio se produce generalmente en planta baja, y en algunos casos en el resto de plantas. (RP1).

c) Adecuamiento de patios de luces: Condición que consiste en mejorar las condiciones higiénicas de los patios. Debido a su mal estado, por suciedad, depósito de escombros o mal estado de las paredes de estos. (RP2).

6. Instalaciones.

a) Implantación de instalación de acometida de gas: Condición que consiste en la instalación de la acometida de gas ciudad a la edificación en caso de que se carezca de ella, para que cada vecino de la unidad edificatoria se pueda conectar en su caso. (RP1).

b) Traslado de las instalaciones de gas al interior: Condición que consiste en el traslado de aquellas cajas de registro y elementos de conexión de la instalación de gas al interior de la edificación, en zonas practicables por los técnicos de gas natural. (RP1)

7. Vivienda/Locales.

a) Reforma general de acabados: Condición que consiste en la reforma de los acabados de los locales comerciales, si estos no se ajustan a lo determinado en la normativa, la condición es exigible solo para la fachada perteneciente al local comercial. (RP1).

b) Adecuación de la cota de locales comerciales bajo rasante: Condición que consiste en situar la cota de acceso de los locales comerciales en la misma cota que la calle. (RP1).

c) Aumento de altura libre de techo: Condición que consiste en el aumento de la altura libre en aquellas viviendas cuya altura libre de suelo a techo no cumple con las condiciones mínimas de habitabilidad. La condición supone levantar el forjado en algunos casos por lo que su exigibilidad es en casos de reforma completa. (RC).

d) Dotación de equipamiento sanitario en viviendas: Condición que consiste en dotar a aquellas viviendas que no dispongan de todos los aparatos sanitarios que necesita una vivienda para cumplir los mínimos exigidos por la normativa en cuestiones de habitabilidad. (RP2).

e) Dotación de iluminación en dormitorios o piezas vivideras: Condición que consiste en la dotación de iluminación de aquellas piezas vivideras que no dispongan de tal, mediante la apertura de huecos a patios o la eliminación de tabiques para permitir el paso de la luz natural. En caso de que la condición requiera una modificación profunda de la vivienda el grado de exigibilidad será RP1. Si la dotación de iluminación se soluciona mediante la apertura de huecos en los tabiques, o la ampliación de los huecos existentes, el grado de exigibilidad será RP2.

f) Logelak edo pieza bizigarriak aireztapenez hornitzea: Baldintza honek aireztapen naturalez hornitzen ditu halakorik ez duten pieza bizigarriak. Horretarako, baoak irekiko dira patioetara edo aireztapena duten beste gela batzuetara, araudian zehaztutako baldintzen arabera. (RP1 edo RP2).

g) Etxebizitzaren atzealdeko gorputz erantsiak ezabatzea: Baldintza honek eraikinari erantsitako gorputzak ezabatu ditu. Gorputz erantsitak hartzen dira eraikinaren egiturari inrtrintsekoki lotuta egonik etxadi-patioetan lursailaren barnealdean bidegabe sartzen direnak. (RP1).

h) Lursailaren barnealdean behe-solairuan erantsitako gorputzak ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu erantsitako gorputzak, hau da, egiturari dagokionez eraikin nagusiarekin zerikusirik ez duten gorputzak. Hortaz, horiek ezabatzeko ez da obra sakonik egin behar eraikinean. (RP2).

i) Eguzki-oihalak ezabatzea: Baldintza honek fatxada-baoetako eguzki-oihalak ezabatu ditu, ez baitira oso egokiak Hirigunearan ezaugarrietarako. (RP2).

j) Behe-solairuan saltokietako atzeraemanguneak ezabatzea: Baldintza honek behesolairuko baoak berriz osatzen ditu erakusleioa fatxada-lerrotik araudian zehaztutakoa baino nabarmenago atzeraemanda duten saltokietan (RP1).

k) Behe-solairuko baoak berriz osatzea: Baldintza honek behe-solairuko baoak aldatzen ditu, saltokietan batik bat, ez baitaude fatxadaren gainerakoarekin erlazioan, kopuru handiagoan daudelako edo modu irregularrean elkartu direlako. (RP1).

l) Bainugeletarako sukaldean zeharreko sarbideak (edo kanpoaldean gorputz erantsi moduan daudenak) ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu bainugeletarako sukaldean zeharreko pasabideak, etxebizitzaren banaketa aldatuta, ordezko pasabideak prestatuta edo bainugela hori ezabatuta. Izan ere, bizigarritasun-araudiak ez du baimentzen sukaldetik bainugeletara zuzenean igarotzea. (RP1).

m) Logeletarako sukaldean zeharreko sarbideak (edo kanpoaldean gorputz erantsi moduan daudenak) ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu logeletarako sukaldean zeharreko pasabideak, etxebizitzaren banaketa aldatuta, ordezko pasabideak prestatuta edo logela hori ezabatuta. Izan ere, bizigarritasun-araudiak ez du baimentzen sukaldetik pieza bizigarrietara zuzenean igarotzea. (RP1).

n) Kanpoaldera ematen duten gelen proportzio minimoa duten etxebizitzak ezabatzea: Baldintza honek ezabatu egiten ditu kanpoalderako argirik ez duten etxebizitzak, gela guztiak barne-patioetara begira dituztenak. (RC).

o) Zirkulazio-elementu komunek zatitzen dituzten etxebizitzak ezabatzea: Baldintza honek aldatu egiten ditu gelak zirkulazio-elementuek zatituta dituzten etxebizitzak. Baldintza betetzeko etxebizitza bitan zati daiteke edo, bestela, zuzeneko komunikazioa ahalbidetuko duten obrak egin. (RP1).

p) Merkataritzako errotozia aldatzea: Araudi honetan kartelei eta merkataritzako errotoziaoi buruz ezarritakoaren arabera egokitzen du merkataritzako errotozia baldintza honek. (RP2).

q) TB antenak, alarmak, aire-girogailuak eta gas-galdarak ezabatzea: Baldintza honek barnealdera lekualdatzen ditu gas-galdarak eta aire-girogailuak. TB antenak estalkira lekualdatuko dira eta alarmak fatxada nagusiaz bestelako lekuren batera, ikus inpaktua txikiagoa izan dadin. (RP2).

f) Dotación de ventilación en dormitorios o piezas vivideras: Condición que consiste en dotar de ventilación natural a piezas vivideras que no disponen de ella, mediante la apertura de huecos a patios, o la apertura de huecos a otras estancias que si dispongan de ventilación, de acuerdo con las características estipuladas en la normativa. (RP1 ó RP2).

g) Eliminación de cuerpos anexos posteriores de vivienda: Condición que consiste en la eliminación de cuerpos anexos a la edificación, entendiéndose como cuerpos anexos aquellos que se encuentran intrínsecamente ligados a la estructura de este e invaden el interior de la parcela en patios de manzana. (RP1).

h) Eliminación de cuerpos añadidos en planta baja en interior de parcela: Condición que consiste en la eliminación de cuerpos añadidos, es decir, la eliminación de cuerpos ajenos que estructuralmente son independientes de la edificación principal, por lo que su eliminación no requiere obras que de gran calado sobre la edificación. (RP2)

i) Eliminación de toldos: Condición que consiste en la eliminación de toldos de tela en los huecos de fachada, ya que son poco adecuados con las características del Casco. (RP2).

j) Eliminación del retranqueo de comercio en planta baja: Condición que consiste en recomponer los huecos de planta baja en aquellos comercios cuyo escaparate se haya retranqueado de la línea de fachada de forma considerable respecto a lo estipulado en la normativa (RP1).

k) Composición de huecos en planta baja: Condición que consiste en modificar los huecos de planta baja, generalmente en comercios ya que no se encuentran en relación con el resto de la fachada, bien por encontrarse en un número mayor o por haberse agrupado de forma irregular. (RP1)

l) Supresión de accesos a cuartos de baño a través de cocinas generalmente, o que están en el exterior como cuerpos anexos: Condición que consiste en eliminar el paso a baños a través de cocinas, cambiando la distribución de la vivienda, habilitando pasos alternativos o suprimiendo dicho baño. Ya que la normativa de habitabilidad no permite el paso directo de la cocina a cuartos de aseo. (RP1)

m) Supresión de accesos a dormitorios a través de cocinas generalmente, o que están en el exterior como cuerpos anexos: Condición que consiste en eliminar el paso a dormitorios a través de cocinas, cambiando la distribución de la vivienda, habilitando pasos alternativos o suprimiendo dicho dormitorio. Ya que la normativa de habitabilidad no permite el paso directo de la cocina a las piezas vivideras. (RP1).

n) Supresión de viviendas con una proporción mínima de estancias al exterior: Condición que consiste en eliminar aquellas viviendas que no tiene ninguna luz a exterior, y todas sus estancias vuelcan a patios interiores. (RC).

o) Supresión de viviendas divididas por elementos comunes de circulación: Condición que consiste en la modificación de aquellas viviendas que tienen sus estancias divididas por elementos de circulación, la condición se puede cumplir mediante la división en 2 viviendas o realizando obras que permitan la comunicación directa. (RP1).

p) Modificación de rotulación comercial: Condición que consiste en adecuar la rotulación comercial a lo establecido en esta normativa respecto a la cartelería y la rotulación comercial. (RP2).

q) Supresión de antenas de TV - alarmas - aparatos de aire acondicionado, calderas de gas: Condición que consiste en trasladar al interior las calderas de gas y los aparatos de aire acondicionado. Las antenas de TV serán trasladadas a la cubierta y las alarmas se trasladarán a otras zonas distintas a la fachada principal en las que el impacto visual sea menor. (RP2).

r) Arotzeria egoki ordeztea: Baldintza honek arotzeria araudiak proposatzen dituen materialetara egokituko du. (RP1).

s) Pertsianak egoki ordeztea: Baldintza honek ezabatu egingo ditu araudian proposatutakoekin bat ez datozen pertsianak. (RP1).

Tolosa, 2010eko azaroaren 17a.—Alkatea. (13558)

r) Sustitución adecuada de carpinterías: Condición que consiste en adecuar las carpinterías a los materiales que la normativa propone. (RP1).

s) Sustitución adecuada de persianas: Condición que consiste en eliminar aquellas persianas que no son acordes con las propuestas en la normativa. (RP1).

Tolosa, a 17 de noviembre de 2010.—El Alcalde. (13558)